

GRADUA: ENPRESEN ADMINISTRAZIO ETA
ZUZENDARITZAKO GRADUA

GRADU AMAIERAKO LANA

**GARAPEN JASANGARRIRAKO
HELBURUAK IRABAZI ASMORIK
GABEKO ENTITATEETAN:
*Nafarroako Bertsozale Elkartearen
kasuaren azterketa.***

Ikaslea: Ibon Txoperena Eloseg
Zuzendaria: Ainhoa Garayar Erro

Ikasturtea: 2019-2020

Data: Donostian, 2020ko urriaren 5ean

LABURPENA ETA HITZ GAKOAK

Gratu Amaierako Lan honetan zati teorikoan bi atal nagusi bereizi daitezke: batetik, garapen jasangarria zer den ikusi eta honen sorreratik Garapen Jasangarriaren Helburuetara nola iritsi den azaldu da, barneratzen diren hiru dimentsioak aipatuaz: ingurugiroa, giza eskubideak eta ekonomia. Baliabide naturalen ustiaketa basatiak eta era berean, gizartearen kontsumo eta ekoizpen ohiturek denona den planeta egoera larri (larriago) batera daramate, larritasun hori handia izan arte ezer gutxi egin delarik joera aldatzeko. Arazo horren ondorioz joan da garapen jasangarriaren kontzeptua garrantzia hartzen, Garapen Jasangarriaren Helburuak direlarik azken ekimen nagusia nazioarte-mailan. Hau horrela, helburuen analisi sakon bat egin da ezaugarriak, eragina, kritikak... faktore ezberdinen azterketa eginez, bai eta azterketa enpiriko bat 70 lagunek erantzun duten inkesta baten bidez, helburuen ezagutzaren ingurukoa, ondoren Irabazi Asmorik Gabeko Entitate batean txertatu daitezkeen ikertuz. Hortik dator zati teorikoko bigarren atala izango litzatekeena, hots, Hirugarren Sektorea eta Gizarte Ekonomiarena. Kontzeptu hauen azalpena eta azterketa ere egin da, Irabazi Asmorik Gabeko Entitateenarekin batera, 2030 Agendak barneratzen dituen helburuen lorpenean zer erran handia baitute mota honetako entitateek. Azkenik beraz, zati enpirikoan, Garapen Jasangarriaren Helburuak Nafarroako Bertsozale Elkartearen barruan aplikatzeko aukeraren azterketa egin da, ondorio positiboak lortuz.

HITZ GAKOAK: garapen jasangarria, Garapen Jasangarriaren Helburuak, GJH, Irabazi Asmorik Gabeko Entitateak, Nafarroako Bertsozale Elkartea.

RESUMEN Y PALABRAS CLAVE

En el presente Trabajo de Fin de Grado, se pueden distinguir dos secciones principales en el apartado teórico: por un lado, se ha explicado que es el desarrollo sostenible y como se ha llegado desde su origen hasta los Objetivos de Desarrollo Sostenible, comentando las tres dimensiones que se involucran: el medio ambiente, los derechos humanos y la economía. La salvaje explotación de los recursos naturales y al mismo tiempo, los hábitos de consumo y producción de la sociedad están llevando al planeta que es de todos a una situación grave (aún más grave) en la que poco se ha hecho para cambiar la dirección hasta considerarlo de gran gravedad. A causa de este problema ha ido ganando importancia el concepto de desarrollo sostenible, siendo los Objetivos de Desarrollo Sostenible la última iniciativa a escala internacional. Por lo tanto, se ha realizado un análisis profundo de las características, impacto, críticas... de los diferentes factores de los objetivos, además de un examen empírico a través de una encuesta respondida por 70 personas sobre el conocimiento de los objetivos, para después investigar su aplicación en una Entidad Sin Ánimo de Lucro. De ahí viene lo que sería la segunda parte del apartado teórico, es decir, la del Tercer Sector y la Economía Social. Se ha hecho un examen y dado una explicación sobre estos conceptos, además de la de las Entidades Sin Ánimo de Lucro, ya que tienen mucho que decir en la consecución de los Objetivos de Desarrollo Sostenible este tipo de sociedades. Por último, en el apartado empírico, se ha llevado a cabo el examen sobre la posibilidad de la aplicación de los Objetivos de Desarrollo Sostenible dentro de la sociedad Nafarroako Bertsozale Elkartea, sacando así conclusiones positivas.

PALABRAS CLAVE: desarrollo sostenible, Objetivos de Desarrollo Sostenible, ODS, Entidades Sin Ánimo de Lucro, Nafarroako Bertsozale Elkartea.

ABSTRACT AND KEY WORDS

In this End of Degree Project, two main sections can be distinguished in the theoretical section: on the one hand, it has been explained what sustainable development is and how it has been reached from its origin to the Sustainable Development Objectives, commenting on the three dimensions involved: the environment, human rights and the economy. The savage exploitation of natural resources and at the same time, the habits of consumption and production of society are leading the planet that belongs to everyone to a serious situation (even more serious) in which little has been done to change the direction to consider it of great gravity. Because of this problem, the concept of sustainable development has been gaining importance, with the Sustainable Development Goals being the latest initiative on an international scale. Therefore, a deep analysis of the characteristics, impact, critics... of the different factors of the objectives has been made, in addition to an empirical examination through a survey answered by 70 people on the knowledge of the objectives, to later investigate its application in a Non-Profit Organization. This is where the second part of the theoretical section comes from, i.e., the Third Sector and the Social Economy. An examination has been made and an explanation given of these concepts, in addition to that of the Non-Profit Entities, since these types of societies have a lot to say in the achievement of the Sustainable Development Goals. Finally, in the empirical section, an examination has been made of the possibility of applying the Sustainable Development Goals within the Nafarroako Bertsozale Elkartea society, thus drawing certain positive conclusions.

KEY WORDS: sustainable development, sustainable development goals, SDG, non-profit organizations, Nafarroako Bertsozale Elkartea.

AURKIBIDEA

1. SARRERA ETA TESTUINGURUA	1
1.1. MOTIBAZIOAK	1
1.2. IKERKETA GALDERA	2
1.3. HELBURUAK ETA IRISMENA.....	2
1.4. METODOLOGIA.....	2
1.5. LANAREN EGITURA.....	3
2. GARAPEN JASANGARRIAREN KONTZEPTUAREN SORRERA	3
2.1. HASTAPENAK.....	4
2.2. MILURTEKO GARAPEN HELBURUAK (MGH)	5
2.3. ONDORIOAK ETA BIDE BERRIAREN HASIERA	12
2.4. GARAPEN JASANGARRIRAKO HELBURUAK (GJH).....	16
2.5. GARAPEN JASANGARRIRAKO HELBURUEN APLIKAZIOA LURRALDE EZBERDINETAN.....	28
3. EKONOMIA SOZIALA ETA HIRUGARREN SEKTOREA	32
4. IRABAZI ASMORIK GABEKO ENTITATEAK	35
5. ATAL ENPIRIKOA.....	41
5.1. GARAPEN JASANGARRIRAKO HELBURUAK IRABAZI ASMORIK GABEKO ENTITATEETAN.	41
5.2. NAFARROAKO BERTSOZALE ELKARTEA	47
5.3. NAFARROAKO BERTSOZALE ELKARTEAREN DIAGNOSTIKOA	49
6. ONDORIOAK	58

IRUDIEN AURKIBIDEA

1 irudia - Milurteko Garapen Helburuak (MGH)	6
2 irudia - Aberastasun globalaren piramidea 2010 eta 2019 urteetan.....	15
3 irudia - Garapen Jasangarrirako Helburuak.....	18
4 irudia - GJHak Europar Batasuneko herrialdeetan.....	29
5 irudia - GJHak Espainiar Estatuan.....	30
6 irudia - Carrol-en piramidea	38

TAULEN AURKIBIDEA

1 taula - Giza garapenaren indizea, adierazleen eta herrialdeen arabera. 2019	10
2 taula - Gizarte Ekonomiako enpresa garrantzitsuenen ranking-a.....	35
3 taula - Finantzaketa mota bakoitzak Hirugarren Sektoreko erakundeen guztizko finantzaketarekiko duen ehunekoa	37
4 taula - AMIA analisis teorikoki	46
5 taula – Nafarroako Bertsozale Elkartearen AMIA analisis	49

GRAFIKOEN AURKIBIDEA

1 grafikoa - GJHen ezagutza 2 grafikoa - GJHen irudiaren ezagutza	25
3 grafikoa - Helburuen eragina eskualdean	26
4 grafikoa - GJHen aplikazioa burututako enpresen ezagutza	26
5 grafikoa - GJHen garrantzia eskualdeko garapenean.....	27

1. SARRERA ETA TESTUINGURUA

2020. urtean sarturik eta lehen industria iraultza hasi zenetik bi mende baino gehiago pasa direlarik, gizarte globalizatu, kontsumitzaile eta desorekatu batean bizi gara. XVIII. mende bukaeran eman zen industriaren garapenaren emaitza izan da hein handi batean gaur egungo gizartea, Bigarren Mundu Gerra ondotik finkatzen joan dena.

60. hamarkadatik gaur arte populazioak eta berekin batera ekoizpen eta kontsumoak, erritmo handiago batean gora egin dute agerikoa eginez sistema kapitalistak dakartzan ohiturak ezin direla luzaro eutsi, natura baliabideak ez direlako mugagabeak, bertzeak bertze.

“Zuhaitz bat egur bihurtu eta erre egingo da zuentzat, baina ez du lorarik edo fruiturik sortuko zuen seme-alabentzat”. Rabindranath Tagore, Literatura Nobeldun poeta Indiarra.

Horrela, urteak joan ahala indar gehiago hartzen joan dira planetaren jasangarritasuna kontutan hartzen duten politikak, bai gobernuetan bai eta sektore pribatuan ere, eta indarra hartu bezala garatzen joan dira. Hau dela eta, natura baliabideen kudeaketa bezalako gai garrantzitsuak jorratu beharra ikusi da, baina gai hau ez da kontsumo ohiturek, produkzio moduek edo kapitalismoaren ezaugarriek orohar hazi duten arazo bakarra. Pobrezia, gerrak, gosea, ur gabezia, ekosistemen galera... gaur egun mundu honek dituen erronka handienetarikoz batzuk dira.

Ikuspegi orokor batetik begiratuta, gizartearen, ekonomiaren, kontsumismoaren... kontrolik gabeko garapen baten islada da munduaren egoera, natura baliabideak, aukera gutxiago dituzten herrialdeak eta azken finean norberaren ongizateak at dagoena kontutan hartu gabe eman dena.

Egoera honetan gizarte osoak dauka, bertzeak bertze, natura baliabideak eta giza eskubideak zaintzeko bete beharra, maila ezberdinetan. Mundu-mailan edo nazioartean hasi garapen jasangarriarekin eta enpresa bakoitzak handia edo txikia izanik gizarte erantzukizuna baneratu eta gobernu onaren bidez jardunez bide berri bat eratzeko beharra dago, larritasunez.

Testuinguru honetan 2030 Agendak bere gain hartzen dituen Garapen Jasangarriko Helburuak ditugu, planetak XXI.mendean dituen arazo globalei aurre egiteko intentzioarekin.

1.1. MOTIBAZIOAK

Proiektua aurrera eramateko hainbat motibazio egon dira presente. Hala nola, garapen jasangarria zer den eta bere beharra zenbatekoa den ikasteko grina, gizarteari osorik eragiten

dion gaia izanik. Horrez gain Garapen Jasangarrirako Helburuen inguruko ezagutza lortu eta Nafarroako Bertsozale Elkartea bezain hurbileko entitate batekin lan egiteko gogoak ere lagundu dute, bai eta noski, Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako Gradua lortzeko azken urratsa izateak ere.

1.2. IKERKETA GALDERA

Lan honen bidez ondorio batzuk lortzeko, lehenik zeri buruzko ondorioak behar diren jakin beharra dago. Horretarako, hasieratik ikerketa galdera nagusia zein den finkatu da, analisia honen erantzunetara bideratzeko. Ondokoa izan da ikerketa galdera:

- *Posible al da Garapen Jasangarrirako Helburuen kontzeptua Irabazi Asmorik Gabeko Entitate batean aplikatzea?*

Galdera honen erantzuna lortzeko xedea izanik abiatu da lan honetan analisi eta ikerketa, azken ondorioetan erantzunak emanaz.

1.3. HELBURUAK ETA IRISMENA

Helburu nagusiak bi ataletan banatu dira, orokor eta espezifikoen artean banatuz.

Helburu orokorreari dagokienez, orokorrena izan daitekeena unibertsitate graduari amaiera ematea litzateke. Lanean gehiago sakonduz berriz, garapen jasangarriaren paradigma ikertu eta ekonomia eta enpresarekin duen harremana aztertzea izan da helburu orokorretako bat, Garapen Jasangarriaren Helburuen inguruko analisi sakon bat egitea eta Irabazi Asmorik Gabeko Entitate bat zer den aztertzearekin batera.

Helburu espezifikoak berriz, Nafarroako Bertsozale Elkartea ongi ezagutu eta aztertzea eta entitatearen diagnostiko bat egitea izan dira. Horrez gain, Garapen Jasangarriaren Helburuak zer diren azaldu eta bertan txertatu edo txertatzeko aukerak aztertzea helburu izan da, eta hortik ondorioak ateratzea. Gainera, Garapen Jasangarriaren Helburuen ezagutza zein den jakitea ere hartu da helburutzat.

1.4. METODOLOGIA

Hasteko zati teorikoa garatzean, Garapen Jasangarriaren Helburuen inguruko bilaketa bibliografikoa egin da erreferentziak diren web guneetan -nazio nahiz nazioarte mailan-, bai

eta UPV/EHUko datu baseak erabili, Google akademikoarekin batera txosten eta albisteak aztertuz eta baliagarria izan zitekeen literatura akademikoa ikertuz. Gainera, landuko den gaiaren inguruko analisia osatzen laguntzeko inkesta baten diseinua egin da (ikus inkesta osoa "ERANSKINAK" atalean), baita ondorengo bidalketa eta datuen bilketa eta tratamendua ere. Ondoren, Hirugarren Sektorea eta Irabazi Asmorik Gabeko Entitateetan murgildu da lana UPV/EHUko ikasketa liburuak eta erreferentziazko web guneak erabiliz hauen lanketarako.

Zati enpirikorako berriz, lana burutu ahal izateko prestutasuna erakutsi duen Nafarroako Bertsozale Elkartearen kide ezberdinekin elkarrizketa irekiak erabili dira, Estitxu Arozena Albizu zuzendaritzako kidea eta Josu Sanjurjo Alzuri bertako langilearekin zehazki, bai eta interes taldeen barruan bertsozale eta bertso eskolako partaide den Ekhiñe Zapiain Arlegirekin.

Bukatzeko, lortutako datu eta informazio guztiaz baliatuz, ondorio batzuk atera dira.

1.5. LANAREN EGITURA

Hasierako laburpena eta ondoren ikusi den sarreraren ondoren, lana atal teorikoan murgilduko da. Garapen Jasangarriaren kontzeptua zein testuingurutan sortu zen, honen eragina, oihartzuna eta beharra nola hazi diren eta bertatik Garapen Jasangarriaren Helburuak nola sortu ziren azaldu da, bilakaera eta bertako partaideen analisi eta kritikak eginez, bai eta gaur egun herrialde ezberdinetan duten eragina erakutsiz.

Ondoren lanaren zati teorikoaren bertze aldea ikusiko da, ekonomia soziala eta Irabazi Asmorik Gabeko Entitateena hain zuzen ere. Bertan kontzeptu hauen azterketa sakon bat egin da, oinarritzko ezagutza bat izatearren atal enpirikora begira.

Azkenik, atal teorikoan sartuko da lana. Bertan Nafarroako Bertsozale Elkartearen zer den ikusi ahal da eta honek Garapen Jasangarriaren Helburuak aplikatu ahal izateko aukera aztertu eta aplikazioa nola egingo litzatekeen ondorioztatu. Bukatzeko beraz ondorioak adierazi dira, ikerketa galderari erantzun bat emanaz.

2. GARAPEN JASANGARRIAREN KONTZEPTUAREN SORRERA

Gizarteak beti izanen du garapen jakin bat, aurrera edo atzera eginen duena erritmo jakin batean. Kontua garapen hori lortzeko zer nolako bidea egiten den aztertzean datza.

Sarreran aipatu bezala, industria indartu zen garaitik honat munduan izan den garapena desorekatua izan da bai herrialdeen artean bai eta ingurugiroarekiko ere, planeta eta bertako biztanleentzat jasagarria ez dena epe batera.

2.1. HASTAPENAK

Gizartea ingurugiroaren kaltea ezagutu ahala joan da natura baliabideen zainketaren garrantziaz jabetzen. Kalte hori giza jardueraren ondorioetako bat izan da, natura baliabideen ustiaketan ez direlako bere mugak errespetatu. Baina noiz hasi da benetan ingurugiroaren arazo hau? Noiz hasi dira klima aldaketa, baso falta edo espezieen galerak? Eta noiz hasi da gizakia arazo larri honi aurre egiteko prestatzen?

Industria Iraultza eman zenetik joan da ingurugiroa kaltetzen, hau izan baitzen produkzioa handitzeko aukera ireki zuena, horrekin batera kontsumoa ere haziz eta gehiago ekoiztu ahal izateko baliabide gehiago ustiatuz. Horrela sistema kapitalista baten baitan, non beti gehiago behar den zentzu guztietan, ekoizpen eta kontsumoaren katea loditzen joan da urteen poderioz munduko biztanleria ere gora joan delarik.

XX.mendearen bigarren erdian ongi sartuak egon arte ez zen kontutan hartzen planetaren ahalmena zein zen eta ekoizpen eta kontsumo ohitura horiek behar zutena zenbatekoa zen. Bigarren Mundu Gerra bukatu arte, herrien, nazioen eta nazioartearen helburu nagusiak gerra eta bere ondorioak sendatzea izan dira. Horrela, bakea eta ekonomiaren egonkortze edo errekuaratze minimo bat eduki arte ez da urrutiago begiratu. Hala baina, Bigarren Mundu Gerraren orbanak estaltzen joan ahala planetak zituen zauriak azaleratzen joan ziren, gero eta ageriagoa zelarik hauen larritasuna.

Horrela, 1968an herrialde ezberdinetako hainbat zientzialari eta politikoko Erroman elkartu ziren bilera batean, indarrean zegoen ekonomia eredu nagusia eta mugarik gabeko baliabideen erabilpenarekin kezkatuak. Bi urte geroago Erromako Kluba sortu zen, planetaren etorkizuna hobetzea helburu zuen Gobernu Kanpoko Erakundea. Erromako Klubak geroztik hainbat ingurugiro txosten argitara eman ditu planetaren egoeraren berri emanaz, arrazoiak adierazi eta etorkizuna zein izan daitekeen erakutsiz. 1972an argitaratu zen lehenengo txostena, Donella Meadows zientzialaria buru zen lantaldeak egina Garapenari Mugak (The Limits to Growth ingelesez) izenarekin. Meadows txostena bezala ere ezagun egin zen txosten hau planetaren mugak onartu eta garapen jasagarri baten beharra zegoela ikusteko lehen pausua izan zela erran daiteke (Aguado, 2018).

Txostenean bertan adierazi zenez, planetan bere muga joko luke hurrengo 100 urteetan orduko baliabide ustiaketa mantenduz gero. Ahalik eta azkarren ekologia eta ekonomiaren arteko oreka batean lanean hasi beharra zegoela erran zen bertan, arrakasta lortu nahi izanez gero.

Txosten honen ondotik etorri ziren Nazio Batuen lehenengo erreakzioa Estokolmon egindako konferentzian zientzia komunitateak salaturiko egoera larria jorratzeko. Behin arazoari garrantzia ematen joan ahala konferentzia, txosten... gehiago egiten joan ziren eragile ezberdinak, Nazio Batuen Garapenerako Programa sortu zuelarik Nazio Batuen Erakundeak (UNDP ingelesez), Gro Harlem Brundtland zelarik nagusi. Komisio honen eskutik 1987an Brundtland txostena argitaratu zen, Afrikan gosete garai larria zegoelarik, Chernobyl-eko istripua gertatu berria zenean eta mundu mailan demografia presio handi bat jasaten zen bitartean.

Txosten hau izan zen Garapen Jasangarriaren kontzeptua teorikoki eta praktikoki eraikitzeko oinarri nagusia sortu zuena. Hiru ardatz nagusi zituen: gizartea, ekonomia eta natura. Bertan bertze helburu batzuk aipatzen ziren sektore publiko zein pribatuarentzat ekonomiko-finantzariorik at, eta sektore pribaturako ideia berriak bultzatzen ziren aldagai etikoak zituztenak, bertzeak bertze, interes taldeak edo parte-hartzaileak enpresaren akziodunak soilik ez izatea. Horrela, 90ko hamarkadatik aurrera oraindik entzute eta garrantzi handiagoa eman zitzaion giza garapena eta planetaren baliabideen eta ekonomiaren arteko oreka bat lortzeari, praktikan eman ez zena, 2000.urtera helduz (Meadows et al., 2006).

2.2. MILURTEKO GARAPEN HELBURUAK (MGH)

2000. Urtean New Yorke egindako Nazio Batuen Milurteko Gailurrean, estatu kide guztiak elkarlanean bakearen eta giza garapenaren alde lan egiteko hitza eman zuten 8 helburu zehaztuz, Milurteko Garapenaren Helburuak bezala ezagutu zirenak. Ondoko hauek izan ziren finkatutako helburuak:

1. Pobrezia eta gosea errotik kendu.
2. Oinarrizko hezkuntza unibertsala lortu.
3. Genero berdintasuna eta emakumeen autonomia bultzatu.
4. Haurren heriotza-tasa txikitu.
5. Amatasunaren osasuna hobetu.
6. GIB/IHESa, malaria eta bertze gaixotasun batzuren aurka egin.
7. Ingurugiroaren jasagarritasuna bermatu.

8. Garapenerako munduko elkarte bat sustatu.

1 irudia - Milurteko Garapen Helburuak (MGH)



Iturria: UNDP (2000).

8 helburu hauek 15 urteko epean betetzeko konpromezua hartu zen, 2015.urtea finkatuz prozesu edo etapa honen bukaera. Helburuetara hurbiltzeko berriz, hainbat helmuga finkatu ziren, 28 orotara. Helmuga hauen bidez helburu bakoitza azpi helburu txikiagotan zehaztu zen, lortzeko hurbilagokoak eta azken finean benetakoagoak egiteko helburuak. Hauek ziren horietako batzuk:

2015erako eguneko dolar 1 baino gutxiagorekin bizi diren pertsonen ehunekoa erdira jaitea; gosea pairatzen duten pertsonen ehunekoa erdira jaitea 2015erako; haur guztiek Lehen Hezkuntzako ziklo oso bat egin ahal izatea 2015erako; genero arteko ezberdintasunak deuseztatu Lehen eta Bigarren Hezkuntzan 2005erako eta hezkuntza maila guztietan 2015erako; 5 urte azpiko haurren heriotza-tasa bi herenean gutxitu 2015erako; amatasunagatik heriotza-tasa hiru laurdenean gutxitu 2015erako; IHESaren zabalkuntza gelditu eta murrizten hasi 2015erako, malaria eta bertze gaixotasun larriekin batera (PNUD, 2000).

Gainera, 48 adierazle diseinatu ziren helmugen eta helburuen lorpena neurtzeko. Baina zer dira adierazleak?

Neurketa tresnak dira, kontzeptu kualitatibo edo kuantitatiboak bildu ditzaketenak. Oinarri objektibo bezala erabili daitezke konparaketa, ordena, kontrola edo bertze hainbat eragiketetarako, aurrez definitutako denbora-muga bati erreferentzia egiten dion emaitza bat formalki eta sintetikoki lortzea helburu dutenean. Adierazleen ezaugarri garrantzitsuenak informazio konplexua laburbildu eta elkar konparatzeko erraztasuna dira (AECA, 2012).

MGHetan adierazle ezberdin asko daudela pentsatu beharra dago. Hauek izan daitezke adibide batzuk:

- 1. Helbururako: Eguneko dolar batetik beherako diru-sarrerak dituzten biztanleen proportzioa (erosketa ahalmenaren parekotasuna).
- 7. Helbururako: Basoek estalitako eremuaren proportzioa.

Era berdinean, adierazle hauek lortzeko formulak diseinatzen dira. Adibidez:

- Lan-produktibitatea = barne-produktu gordina [merkatu-prezio konstanteetan adierazita tokiko monetan]/guztizko enplegua.
- Lan-produktibitatearen hazkunde-tasa = $[(n \text{ urteko lan-produktibitatea} - N-1 \text{ urteko lan-produktibitatea}) / (N-1 \text{ urteko lan-produktibitatea})] \times 100$

Azken finean, adierazleak informazioa ematen dute kudeaketa eta aztertze lan hobeak lortzeko edozein jardunetan, eta kasu honetan MGHen lorpenean gardentasuna, datuen informazio labur eta garbia ondorioetara heltzeko eta beraz, erabakiak hartzeko erraztasuna ematea dute helburu.

MGH bezalako dimentsioak hartzen dituen prozesu batean, adierazleek berebiziko garrantzia dute emaitzak ikusi ahal izateko orduan. Adierazle hauen diseinuaz Nazio Batuen Estatistika Batzordea arduratzen da, bere helburua herrialde guztietako datuak eta egindako aurrerapenak ikusi eta konparatu ahal izatea delarik.

Erran beharra dago herrialde bakoitzak bere ezaugarriak dituela eta baliteke batzuetan zenbait adierazlek zailtasunak izatea beharrezko datuak lortzeko, eta hortaz sineskortasuna galtzea. Hala ere mundu osoko datuak ahalik eta hobekien erakusteko tresna fidagarrienak dira, eta herrialde guztiek lortu behar dute beren aplikazioa. MGHen lehenengo azterketen ondoren herrialdeek emandako datuen eta agentzia internazionalak emandako datuen artean %10eko kointzidentzia lortu zen (Taccari eta Stockins, 2013). Ikus dezagun adierazleekin gerta daitezkeen arazo bat:

Demagun munduko pobrezia bilakaera neurtu nahi dela. Horretarako, pobrezia muga non dagoen finkatu beharra dago. Baina herrialde bakoitzak berea duenez, bakoitzak bere aldetik neurtu beharko du eta denak batzeko unean baliteke ezadostasunak egotea. Horrela herrialde bakoitzak bere pobrezia-tasaren nondik norako bat lor dezakeen arren, zaila da

herrialdeen arteko diferentziak ongi ikustea. MGH pobrezia muga zein den zehazten dute, herrialde bakoitzaren egoera eta ezaugarriak ezberdinak diren arren. Hala ere, herrialde pobreenetan zaila da neurketa zehatzak lortzea, eta 2000-2015 urteen artean datu asko hurbilketa edo estimazio subjektibo hutsak izan ziren, bertze herrialde batzuetakoak oinarrizko adierazleak ibiltzera ere iritsi ez zirelarik. Nazio Batuen Garapenerako Programak egindako 2015eko MGHen txostenaren arabera: “Oraindik ere datu-hutsune handiak daude garapen-arloetan. Datu egokien falta eta dimentsio garrantzitsuetan banakatutako datuen eskuragarritasunik eza dira erronka nagusietako batzuk”. Gaineratzen da ere: “2002tik 2011ra bitarteko 10 urteetan, 57 herrialdek (%37ak) soilik pobrezia-tasaren estimazio bat edo bat ere ez zuten” (PNUD, 2005).

Kontziliazio estatistikoa ere bertze kontzeptu garrantzitsu bat da. Termino honek erraten duena da datuen seriotasuna lortzeko maila global batean, iturri internazionalen eta nazionalen datuek bat egin behar dutela edozein ondorio atera aurretik. Azkenean, kontziliazio hori gabe ezin dira MGHen aurrerapenak eta egoera behar bezala kalkulatu. Behin datu fidagarriak lortuz gero, monitorizazioa egiten da emaitzen nondik norakoak aztertu eta ondorioak ateraz, hartu beharreko erabakietarako (Taccari eta Stockins, 2013).

Beraz argi dago adierazleek beraien mugak edo gabeziak ere badituztela. Ez da erraza adierazle unibertsal batzuk lortzea munduko herrialde guztietan erraztasunez aplikatzeko, eta hori dela eta batzuetan iturri ezberdinek azterketa bera eginda ere emaitza ezberdinak argitaratzen dituzte, edo bertze zenbait kasutan ezin da emaitza fidagarririk lortu. Hala ere, ez da erran beharrik oinarrizko tresna direla helburuen jarraipen eta ondorioak ikusi ahal izateko eta askotan adierazle batek emaitza zehatzak ez baditu ematen ere, errealitatera hurbiltzeko balio izanen du.

Behin adierazle bat zer den jakinik, MGH aztertu beharra dago era sakonago batean. Argi dago 2.000. urtea ez zela urte miragarri bat izan bat batean ideia hau sortu eta martxan jarri zena. Aurreko hamarkadetatik gero eta garbiagoa zen garapen berri bat beharrezkoa zela eta ezer gutxi egiten zela ordukoa aldatzeko. Nazio Batuen 90.hamarkadako gailurretan hainbat adostasun lortuak ziren MGHen antzekoak zirenak, baina azken hauek izan ziren publikoki gizartearen zati batean behintzat ezagun egiten joan zirenak. Lehenengo aldiz Nazio Batuen Erakundeak publizitate kanpaina bat egin zuela erran daiteke akordio honen inguruan jendeak ezagutza izan zezan, herrialde guztietan entzun zedin honen inguruan.

Gainera, lehenengo aldia zen ere herrialde guztiek helburu amankomun batzuk zituztela, berdin zuelarik herrialdearen egoera zein zen. Hortaz, garapenaren kontzeptua globalizatu zen

herrialdeen arteko mugen garrantzia gutxituz. Baina zer da garapena? Askotan aditzen da herrialde bat garatua dela, aberatsa dela, garapen bidean dagoela, garatu gabea dela... Baina kontzeptu hauek zein erranahi dute?

Glosbe hiztegi birtualean agertzen denez (Glosbe, d.g.), herrialde garatua industrializazioan, azpiegituran eta kapitalen bertzelako inbertsioetan, teknologia sofistikatuan, heziketa zabalean eta bizi-estandar aurreratuan maila handia duen nazioa da. RAEren hitzetan berriz, herrialde garatu bat maila ekonomiko altua duen herrialdea da, bertako biztanleen per capita errentak neurtuta. Herrialde baten garapena eta garapen ekonomikoa beraz kontzeptu bera direla erran daiteke, gaur egun erabiltzen den terminoetan. Baina hala beharko luke? Eztabaida sakon bat sor daiteke hemen.

Gizapedia, euskarazko giza eta gizarte zientzien entziklopedian adierazten den bezala, garapen ekonomikoa eta azpiegarapen ekonomikoa adierazle ekonomikoekin (per capita errenta, lehengai edo produktu batzuen kontsumoa, errepide-kilometroak...) eta orokorrean hazkunde ekonomikoarekin lortzen diren aldagaiekin neurtzen dira. Hori horrela izanik, herrialde azpiegaratua normaltzat hartzen diren aldagai horien balioetara heltzen ez den egoera ekonomikoa duena litzateke. Behin behineko egoera bezala hartzen da, beharrezko baldintzak betez gero herrialde garatua bilakatzen baita. Hau teoria neoklasikoen baitan biltzen da, eta Gizapediako artikuluan ongi azaltzen da: "hauetan eredu teoriko zabalduena W. Rostow-ek 1950eko hamarkadan plazaratu zuena izan zen, gizarte tradizional batean hasierako baldintza batzuk beteta, hala nola kapital-metaketa, baliabide naturalen ustiapena, giza kapitala, azpiegiturak eta nekazaritza produktibitatearen gehikuntza, abiatze-aldi zabaltzen duena, inbertsio produktiboaren hazkundearekin eta lan indarra nekazaritza industria eramatearekin, egitura politiko eta instituzional egokiek batera; azkenik, heldu-aldia iritsiko litzateke, zerbitzuen sektorearen garapena, masa-kontsumoaren gizartearen baitan jada" (Gizapedia, d.g.).

Ikusi daitekeen bezala, ikuspuntu kapitalista batetik definitzen den kontzeptua da herrialde baten garapena. Gaur egun herrialde batek garatua izatearen estatusa lortu ahal izateko bertako biztanle bakoitzak batz bertze asko kontsumitu beharra du nahi eta nahi ez, energian edo teknologia produktuetan bertzeak bertze, eta kontsumo handi horrek ekartzen duen ondorioak sortu, zaborra edo kutsadura (erregai fosilen bidezko ibilgailuak ibiltzeagatik adibidez). Izan ere, modu honetako herrialdeak dira per capita errenta handia eta aurreko paragrafoan aipatutako ezaugarriak betetzen dituztenak.

Herrialde azpigaratu deitzen direnak berriz, industria gabezia izaten dute, lehen sektorean oinarritutako ekonomia dutelarik. Herrialde garatu bezala hartzen direnetan populazioaren zahartzea ematen den bezala, hauetan jaiotza-tasa da handitzen dena, bizi-itxaropena baxuagoa delarik. BPG oso baxua izan ohi da eta baliabide eta azpiegitura eskasak dituzte (Bidaurrezaga, 1998).

Ondorioz, erran bezala garapena eta herrialde garatua zer den edo zeri deitzen zaion aztertzean, ekonomiaren hazkundera da begiratzen dena. Baina garapen jasangarriaren ikuspuntutik begiratu gero, garapena hazkunde ekonomikoa baino gehiago da, gizartearen eta ingurugiroaren onurarekin zerikusi handiagoa duena.

Nazio Batuek 1992an herrialdeak Giza Garapenaren Indizearen (GGI) arabera sailkatzea proposatu zuen. Adierazle honek, aberastasuna sailkatzeko erabiltzen ziren balio klasikoak, ekonomikoak soilik, hala nola Barne Produktu Gordina (BPG), Per capita errenta (BPG zati biztanle kopurua), beste faktore kultural eta soziodemografikoekin konbinatuta, adibidez, jaiotzako bizi-itxaropena, eskolatzeko-maila, kulturaren eskuragarritasuna, eta abar (Eusko Jaurlaritzaren Hiru.eus, d.g.).

Modu honetan, nahiz eta oraindik garapen jasangarriaren kontzeptutik urruti dagoen garapen baten inguruan jardun, BPG handiena duen herrialdea ez da munduko herrialde "garatuena" izan beharrik, jarraian frogatu daitezkeen bezala:

1 taula - Giza garapenaren indizea, adierazleen eta herrialdeen arabera. 2019

	Indice de Desarrollo Humano	Esperanza de vida al nacer en años	Años esperados de escolaridad (a) (b)	Años promedio de escolaridad (a)	Renta nacional bruta per cápita en PPP en US\$ de 2011 (c)
	2018	2018	2018	2018	2018
DESARROLLO HUMANO MUY ALTO					
1 Noruega	0,954	82,3	18,1	12,6	68.059
2 Suiza	0,946	83,6	16,2	13,4	59.375
3 Irlanda	0,942	82,1	18,8	12,5	55.660
4 Alemania	0,939	81,2	17,1	14,1	46.946
4 Hong Kong, China (RAE)	0,939	84,7	16,5	12,0	60.221
6 Australia	0,938	83,3	22,1	12,7	44.097
6 Islandia	0,938	82,9	19,2	12,5	47.566
8 Suecia	0,937	82,7	18,8	12,4	47.955
9 Singapur	0,935	83,5	16,3	11,5	83.793
10 Países Bajos	0,933	82,1	18,0	12,2	50.013
11 Dinamarca	0,930	80,8	19,1	12,6	48.836
C.A. de Euskadi	0,926	83,6	18,7	11,1	47.633
12 Finlandia	0,925	81,7	19,3	12,4	41.779
13 Canadá	0,922	82,3	16,1	13,3	43.602
14 Nueva Zelanda	0,921	82,1	18,8	12,7	35.108
15 Reino Unido	0,920	81,2	17,4	13,0	39.507
15 Estados Unidos	0,920	78,9	16,3	13,4	56.140

Iturria: Eustat (2019).

Per capita errenta handiagoa izanagatik, herrialdeak ez dira bertze baten aurretik egon beharrik beraz.

Beraz, herrialde bat garatua ala ez garatua, edo batzuetan ere erabili ohi diren aberats edo pobre deitzeko momentuan, benetan zer erran nahi den jakin beharra dago. Herrialde garatua zeri deitzen zaion ikusita, aberats deitzea ere normala da, garapena hazkunde ekonomiko bezala ulertzen bada beti ere. Hala baina, lan honetan kontzeptu tradizional horien definizioa baino ikuspuntu modernoago edo garapen jasangarriarekin bat gehiago egiten duen batetik ikusten da, gogoeta bultzatuz.

Herrialde garatuenak bezala ezagutzen direnak aberatsak ere deitzen dira... baina agian aberastuak deitu beharko lirateke? Herrialde askok beren koloniak erabili dituzte industria eta merkataritza indartzeko historian zehar, horrela industriaren garapena eta honen bidez ekonomiaren garapena haziz. Adibidez, Ingalaterrak inperio bezala India eta Australiak koloniak hazkunde ekonomiko lortzeko erabili zituen, hala nola, Ekialdeko Indietako Britainiar Konpainia sortuz. Beraz, garatu edo ez garatuz gain, aberatsak direla erran beharrean aberastu ere deitu daitezke herrialdeak. Ikuspuntuaren arabera kontzeptu bakoitzak zer erran nahi duen jakin behar da.

Milurteko Garapenaren Helburuetara itzuliz, herrialde guztiek helburu amankomunak zituzten lehenengo aldia zela aipatu da, herrialdearen garapena (dena delakoa) kontutan hartu gabe. Aipatzekoa da pobrezia larria, goseteak, ekosistemen galera... bortitzen jasaten zuten herrialdeei beren arazoak zirela leporatzen zitzaizela egoera hobea zuten herrialdeetatik, eta ez zutela esku hartzeko arrazoirik. Bertze hitz batzuetan erranda norberaren arazoak norberak konpondu behar ditu. MGHeK arazo hauek internazionalizatzearen alde egin zuten, herrialde guztiei beren ardura aitortzera behartuz (modu lotsati batean bazen ere) munduko milioika pertsonen arazoen aurrean.

Bide horretatik joanda helburu bat ere finkatu zuten, 8.a, herrialdeen arteko aliantzak indartu asmoz. Hala ere ongi begiratu gero ez zioten ahuntzaren gauerdiko eztula baino askoz garrantzi gehiago eman. Izan ere, emaitzak neurtzeko adierazlerik ez duen helburu bakarra da eta helmugarik zehaztua ez duen bakarra.

Aliantzen afera fundamentu handirik gabe jorratu arren, nazio bakoitzaren baitan aliantzak egon zitezkeela ere definitu zuten MGH sortzean. Herrialde bakoitzak, beti ere prozedura orokor ofizialaren baitan, bere prozedura jakinak diseinatu behar ditu helburuak lortzeko dauden baliabide ezberdinekin. Horrela, gobernuek bakarrik jardun beharrean helburuen lorpenean, gizarteko eragile ezberdinek beren pisua dute. Egia da gobernuek azken finean boterea dutela eragile horien pisua erabakitzeko garapen berri horren lanketan, baina

modu honetan gizarteak politika presio handiagoa sortzea lor dezake. MGHEk aldarrikapen sozialei zilegitasun handiagoa ematen dietela erran daiteke (Gonzalez, 2005).

Emaitzen jarraitze prozesuan, 2010erako MGHen oinarrizko helmuga egin zela adierazi zen: 1990ean pairatzen zen muturreko pobrezia erdira jaistea. Horrela ikusita, eraginkortasun handia izan zutela pentsa daiteke, baina ezta gutxiago ere. Lehenik eta behin, pobrezia mugaren bera zalantzarria izan daiteke askorentzat. Eguneko dolar baten azpiko muga behar bada gutxiegi izan daiteke. Hala ere jarritako helburua behintzat lortu zen, eta aurrerapenak egin zirela ere adierazi zen Nazio Batuen Erakundetik haurren hezkuntza eta heriotza-tasaren inguruan. Bertze aldetik ordea, ez-betetze larriak izan zirela ere salatu zen lan prekarietatea, karbono dioxido isurketa edo amatasun heriotza-tasaren inguruan, atzerapenak eraginez (Unceta, 2015).

2.3. ONDORIOAK ETA BIDE BERRIAREN HASIERA

2015a iritsi eta helburu hauen betebeharra noraino iritsi zen ondorioztatzeko aneuan ordea, ez zegoen garbi eta zehatz-mehatz erraterik. Egia da MGH argi izpi batzuk erakutsi zituztela eta elkarlanean helburu global hauek lor daitezkeela pentsa erazi, baina ez ziren behar bezala bete inondik inora ere. Gainera, helburu hauek motz eta zaharkituak gelditu ziren. MGH hauek mugatuak izan zirela, gaur egungo beharretara osotasunean heltzen ez direla eta herrialde guztietarako proportzioan neurriak ez dituztela eskaintzen argudiatzen da.

Bertze hainbat kritika jaso zituzten MGHEk, bai zuten irismen eskasagatik, bai eta benetan zutena baino irismen handiagoa erakutsi nahi zutelako ere. Gonzalezek (2005) bere artikuluan egiten duen hausnarketa interesgarria da, MGHen ezkutuko tranpak azaleratzen baititu nolabait errateko. Bertan Gonzalezek dio garapenerako helburuen beharpen baten lekuko garela MGHEkin. Bere esanetan helburu hauekin garapena pobrezia beharrezkoarekin adierazita gelditzen da, pobrezia bere forma materialeenean ulertuta gainera, hau da, eguneko dolar 1 baino gutxiagoko muga. Horrela, pobrezia kontzeptua mugatu egiten dute MGHEk, askatasun, botere edo baliabideen pribatizazioa kontutan hartu gabe. Garapenak beraz kasu honetan ez ditu dimentsio kulturala bezalako kontzeptuak barneratzen eta bere bertsio minimalista honek bi ondorio nagusi dakartza berekin.

Alde batetik, Gonzalezek ustez herrialde aberatsenei garapenaren kooperazio legitimoa zein den adieraz diezaike, gizarte gastuetara funts gehiago bideratuta soilik nahikoa izanik horrela. Modu honetan politika gogorrak izango liratekeenak ez dira ukitzen, merkatuaren lege

“naturalak”, industria, finantza mundua, fiskalitatea, ingurugiro politikak... garapen modelo aldatu gabe, gainera mozorro merke bat jartzea baino ez litzateke izango.

Bertze aldetik, baina aurrekoarekin lotuta, “garapenaren beherapena” izango genuke autorearen ustetan. Gonzalezen hitzetan Borroka kontzeptual bati lekua ematen zaio hemen, garapenak bere baitan zer sartzen duen zalantzan jarriaz. MGHek ezer gutxi aldatzen dute garapenaren kontzeptua aurreko garaietatik eta beraz, garapena hazkunde ekonomikoarekin lotzen da, hazkunde hori herrialde aberatsetan ematen delarik. Giza garapenak pertsona eta bere askatasuna jartzen du garapenaren erdian, eta hazkunde ekonomikoa bigarren maila batera eramaten du, garrantzia duena baina pertsonen baliabideak areagotzea helburu duen delarik. Horrela, giza garapena gizarte guztiek behar duten garapen bat da eta ez soilik herrialde pobreek. Gainera, herrialde aberatsenen garapen modeloen kritika bilakatu daiteke, bai hauen emaitzagatik, bai eta lortzeko modurengatik.

Azkenik, Gonzalezen (2005) ustez mundu guztiak bere egin zituen MGH, hauen alde jardunean bazebiltzan bezala. Baina funtsean, MGH erabiltzen ari ziren pobrezia aurrerako eragin negatiborik ez zuen borroka bat egiten ari zirela adierazteko, benetan hala ez zenean. Herrialde askotako gobernuak, erakunde internazionalak (Nazioarteko Diru Funtzak adibidez)... pobrezia aurrerako borroka bat isladatu nahi zuten gizarteak lasaitzeko, berez faltsua zena. Historiak erakutsia du pobrezia murriztea prozesu politiko gatazkatsu bat dela, batzuk pobrezia aurreratzeko bertze batzuek aberastasuna pilatzeko gosea baretu beharra dutelako, eta gaur egun mundua agintzen dutenak ez daude prest pertsonen eskubideak lege ekonomiko “naturalen” gainera jartzeko.

Ondorioz, MGH jomuga garrantzitsua izan dira, baina garbi eduki beharra da ez direla giza eskubideen gutxienerako behar bat baino gehiago, eta motz gelditzen direla salatu beharra dago. Benetako garapen jasangarri eta global baten alde egin ahal izateko herrialde garatuetako gizarte erakundeak aliantza estu bat lortu behar dute ekoizpen, kontsumo eta bizi ohiturak aldatu behar direla erakusteko herrialde garatuei, eta horrek hainbat politiko eta bihotz ukitu beharko ditu.

Horren harira aipatu beharra dago MGHak kritikatuak izan direla xede horien izaera teknokratiko, “minimalista” eta anbizio txikikoa izateagatik; baita garapen-arazoaren kausetan baino gehiago sintometan zentratuta egoteagatik (bereziki, muturreko pobrezia murrizketaren partzialen zentratuta egoteagatik, berdintasun eza kontuan hartu gabe,); bestalde, agenda hori gauzatzeko eginkizuna duten bitartekoei funtsezko aldaketarik ez planteatzeagatik; eta agenda unibertsal bat zehazteari uko egiteagatik, soilik herrialde behartuenetara edo baliabide

ekonomiko gutxienak dituztenetara mugatuz. Gainera, MGHak 1990eko hamarkadan garapenaren gobernantza globalean nagusi zen botere koaliziotik ateratako akordio bat izan ziren (ELGAko herrialdeak, Nazioarteko Diru Funtza (NDF) eta Munduko Bankua). Horri guztiari esker, MGHak globalizazioaren ikuspegi neoliberalak legitimatzeko eta haren hedapena errazteko tresna gisa ere interpretatu dira, haren alderdi gogorrenak eta kostu sozial zuzenenak leunduz. Hori horrela, GIHen eztabaida- eta prestakuntza-prozesua oso testuinguru desberdinean gertatu da MGHen kasuarekin alderatuz (zenbait herrialdeetan pobrezia eta desberdintasun handiagoa ekarri zuten liberalizazio- eta doikuntza-politikak izan baitziren MGHak) (Sanahuja eta Tezanos, 2017).

Horrela baina, MGHen mugak muga eta trikimailuak trikimailu, hauen arrakastaren bidea oinarritzat hartuta garatu ziren Garapen Jasangarrirako Helburuak. Aurreko 15 urteetako ibilbidea aztertuz, finkatzen diren helburuen lorpena prozesu bateratu eta koordinatu batean eraman behar dela ikusi zen. Hau da, helburuetako bakoitzak bertze batekin harremana duela ondorioztatu zen eta norberak bere bidea egiteak kontrako efektua ekar lezakeela bertze batengan, edota helburu batean arreta galtzeak bertze batean atzerapenak sortu ditzakeela.

Pobrezia aurkako borroka kontzeptu zabalago baten bidez gauzatu beharra dago: garapen jasagarria. Aldaketa klimatikoa eta ingurugiroaren hondamenak pobrezia areagotzen dute, honen aurkako esfortzua lurperatuz. Frogatua dago herrialde garatuen jarduerak sortzen duten ingurugiroaren kaltea herrialde txiroek pairatzen dutela. Gainera, pobrezia handia duten herrialde hauek sentikorragoak dira ekosistemaren, klimaren... aldaketetara, luraren eta inguruaren bidez lortzen baitituzte askok beren irabaziak (landa-eremuak, ehiza...) eta aldaketa hauek zuzenean eragiten dute beraien bizian. Hala ere, MGHei uste zuten lehenengo pobrezia gutxitzea lortu eta gero, ondoren, ingurugiroaren jasagarritasuna bermatuko zutela (Sanahuja, 2015).


Ondorioz, MGHen ondorengo izango zenak nahita ez modu integratu batean jokatu beharko luke, helburu bakoitzak bertzeekin lotura duela jakinik. Gizakia izanik harri berean bi aldiz erortzen den izaki bizidun bakarra, ez litzateke harritzekoa izaneren berriz ere helburu batzuk gutxiestea bertze batzuekiko eta horrela berez zaila dena zailtzea, baina kasu honetan teoriarik behintzat kontutan hartu zen kontzeptu hau.

Gainera, globalizazioaren kontzeptua dago hemen. Nazioarteko Diru Funtzak definitzen duenez, globalizazioa handituz doan munduko herrialde ezberdinen arteko independentzia ekonomikoa da; ondasun, zerbitzuen nahiz finantza fluxuen mugaz gaindiko transakzio bolumenaren nahiz aukera ezberdinen hazkuntzak sortua, teknologia berrien zabaltze azkar eta


orokorra bultzatuz. Hau horrela, MGH 2000.urtean globalizazioa jada indarrean zegoelarik eman ziren, baina GJH sortu zirenean globalizazioak mundua aldatua zuen, sistema internazionala zehazki. Ordura arteko ipar/hego zatiketak indarra galdu zuen, bereziki 2008an hasitako krisiaren ondoren, non iparraldeko herrialdeak problema globalen errudun kokatu ziren, konponketa iturri beharrean. Horrela iparraldeko herrien nagusitasun moral eta politikoa ezbaian jarri zen eta nahiz eta ez izan iparraldearen gainbehera, honen mundu mailako lidergo absolutuak indarra galdu zuen, eta ez du berreskuratuko. Munduko pobrezia banatuagoa dago herrialdeetan zehar, nahiz eta askotan herrialde barruko arrakalak handitu, eta honek bertze hainbat faktoreekin batera aipatutako ipar/hego erlazioa baino erlazio unibertsal bat ekarri zuen. Ordura arteko laguntza politika hori (iparraldekoek hegoaldekoei arazoekin laguntzea) deuseztatu eta agenda unibertsal bat jarri zen martxan non herrialde guztien politika nazionaletan, zein baliabide ekonomiko handienak zituzten herrialdeetako bizi estilo ez jasagarrian eragin zuen (Adams, 2015).

Gaia ukituenez, mundu-mailan aberastasunaren banaketa zein den ikusi behar da. Horretarako, Credit Suisse-k hainbat urtetan egin duen Aberastasun Globalaren Txostenean (Global Wealth Report) argitara ematen duten aberastasunaren piramideak aztertuko da. CREDIT Suisse Group A.G. Suitzako finantza zerbitzuetako enpresa bat da, banku pribatuetan, inbertsioetan eta aktiboen kudeaketan diharduena. Bezero pribatu, korporatibo eta instituzionalei aholkularitza integralak ematen dizkie, ondare handiko kudeaketa eta aholkularitza espezializatua dagoelarik. Hona hemen 2010 eta 2019. Urteetako munduko aberastasunaren banaketa islatzen duten piramideak:

2 irudia - Aberastasun globalaren piramideak 2010 eta 2019 urteetan



Iturria: Credit Suisse (2010).



Iturria: Credit Suisse Global Wealth Report (2019).

Irudia begiratu bezala argi ikusten dena zera da: munduko aberastasun guztia oso gutxi batzuen eskutan dago. 2010ean adierazten denez munduko biztanleriaren %0,5ak (24,2 milioi pertsona) aberastasunaren %35,6a (69,2 bilioi dolar) pilatzen du. Behealdean berriz, biztanleriaren %68,4ak aberastasun osoaren %4,2a bertzerik ez duela ikusten da. 2019.urtean ostera, biztanleriaren %0,9a (47 milioi pertsona, hau da, Espainiar Estatuaren biztanleria gutxi gora behera) aberastasun globalaren %43,9aren jabe da. Era berean, mundu-mailan pilatutako aberastasunaren %1,8a biztanleriaren %56,8aren artean banatzen da. Bertze hainbat konbinazio egin daitezke munduko biztanleria eta aberastasunaren artean, zein baino zein lotsagarriagoak.

Horrelako datuekin agerian gelditzen da helburuetako lehena dena, pobreziarena, aberatsen gosearen ondorio dela hein handi batean. Gaur egun aberatsenak diren pertsona asko eguneko ogia erosteko ez dutenen eskulanaz baliatzen dira gehiago aberasteko, pobrezia borrokatzeko helmugek ez dutelarik aberastasunaren banaketaz hitz egiten. Helburuaren birformulazio bat beharko litzateke, aberatsenak direnen parte-hartzea indartzeko ongizatearen mantenuan. Hau da, dagozkien errenten araberako ekarpenak egin behar izatea, gizartearen mesedetan. Gisa honetako ekintzarik gabe, behar bada Robin Hood-i deitu beharko zaio azkenean.

Hala baina, tartean pobreziarekin amaitzea helburu zuten MGH aurrerapauso bat izan ziren garapen jasangarriaren aldeko politiken baitan, eta hauen bertsio hobetua lortzeko ezinbertzekoak izan ziren.

Horrela, Garapen Jasangarrirako Helburuak diseinatu ziren, identifikatutako arazoak ekidin eta helburuak hobetzeko asmoz. Laburbilduz, arazo handiena bukaerako ondorio bat ateratzean sinplea izan zen: helburuak ez ziren lortu. Gehiago sakonduta berriz hainbat kausa atara ziren bidea hobekiago ez egitearen errudun: adierazle fidagarrien beharra, helburuen arteko lotura eta koordinazioa eta herrialdeek helburuak bete ahal izateko egindako esfortzua. Honez gain, teknologia eta informazioa prozesatzeko baliabideak azkar aldatzen diren garai batean bizi garenez, kontutan hartu beharra zen MGHen ondorengoak egoera berrietara egokitu beharko zuela, bai helburuei bai eta hauek lortzeko prozedurei zegokienez.

2.4. GARAPEN JASANGARRIRAKO HELBURUAK (GJH)

2015. urtean beraz garapenaren ikuspegi berrira egokituz, inoizko agenda konplexu eta garatuena sortu zuen Nazio Batuen Erakundeak, 2030 agenda, bertan Garapen Jasangarrirako Helburuak txertatuz.

Helburu hauek 3 oinarritzko dimentsio barneratzen dituzte: oparotasun edo onura ekonomikoa, gizarte berdintasuna eta ingurugiroaren jasangarritasuna. 3 dimentsio hauek era unibertsalean herrialde guztietarako aplikatzen dira (Gomez, 2018).

Gainera 5 aldaketa nagusi eman ziren MGHetatik GJHetara:

- **JASANGARRITASUNA:** Hau da behar bada oinarritzko diferentzia. MGHeK ez zuten garapen jasangarri baten kontzeptua barneratu. Ingurugiroaren jasangarritasuna helburu bat zen, baina ekonomiaren garapena eta pobreziaren murriztea bezalakoetan ez zen jasangarritasuna kontutan hartzen, eta gero ondorioztatu zen ezin dela ezer egiten jarraitu natura baliabideak eta giza eskubideak errespetatuz ez bada.
- **ZUZENTASUNA:** Milurteko Garapenaren Helburuak batz besteko nazionaletan oinarritzen ziren beharrezko neurketa eta eragiketetarako, eta ez zituzten kontutan hartzen komunitate kaltetu eta txiroenak. GJHeK parametro gehiagorekin lan egiten dute, errealitatea hobeki azaleratuz eta beraz erabaki egokiagoak hartuz.
- **UNIBERTSALTASUNA:** Milurteko Garapenaren Helburuak egoera larriena bizi zuten herrialdeetarako bideratzen ziren bezala (gerran zeudenak, BPG txikiena zutenak...), GJHeK argi uzten dute arazo guztiak lotuta daudela eta herrialde guztiek barneratu behar dituztela.
- **ARDURAK HARTZEA:** GJHeK lehen aldiz munduko herrialde guztiak helburu berdinetara bideratu dituzte. Honek herrialdeetako gobernuak 2030 agenda beren barne-politikan jorratu beharko dutela erran nahi du, hau da, MGH baino gehiago landuko direla.
- **IRISMENA:** Aurreko helburuekiko GJH bikoiztu egin dira, 8tik 17ra pasaz. Horrela, arazo larria diren eta kontutan hartu ez ziren gaiak ere sartu nahi izan ziren, aldaketa klimatikoa edo enplegu duina bezalakoak (Unicef, d.g.).

Garapen Jasangarrirako Helburuak beraz MGHak hobetu, garatu eta hedatuta atera ziren, 8 helburu beharrean 17 izanik, 169 jomuga bidez garatuak, 230 adierazlez neurtuta. Hauek dira 17 helburuak:

1. Pobrezia desagerraraztea
2. Goserik ez

3. Osasuna eta ongizatea
4. Kalitatezko hezkuntza
5. Genero berdintasuna
6. Ur garbia eta saneamendua
7. Energia irisgarria eta ez kutsagarria
8. Lan duina eta hazkunde ekonomikoa
9. Industria, berrikuntza eta azpiegitura
10. Desberdintasunak murriztea
11. Hiri eta komunitate jasangarriak
12. Ekoizpen eta kontsumo arduratsuak
13. Klimaren aldeko ekintza
14. Itsaspeko bizitza
15. Lehorreko ekosistemetakoko bizitza
16. Bakea eta justizia
17. Helburuak lortzeko aliantza

3 irudia - Garapen Jasangarrirako Helburuak



Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia (2017).

Hortaz, 17 helburu hauek aurreko 8ak ordezkatu eta 2030 Agendako oinarrizko elementu bilakatu ziren, hurrengo urteetako garapenaren ardatz izan beharko lirakeenak. Helburu hauek unibertsalak eta garrantzi handikoak izanik diseinu konplexu bat izan zuten, hasiera batean Batzar Nagusiko Lantalde Irekia deiturikoak egin zuena. Lantalde honek egindako proposamena ondoren Garapen Jasangarrirako Helburu bezala ezagutuko genuenaren prototipoa izan zen, 2015eko uztailean argitara eman zena. Horrela, irailaren 25ean onartua izan zen 150 estatu buru eta NBEko 193 partaideengatik.

Aintzinetik aipatu den bezala, GJH hauen aurrekoen bertsio berri eta hobetua dira edo izan behar lukete. MGH bezala, helburu nagusiak muturreko pobrezia eta gosea dira jasangarritasunaren kontzeptua delarik diferentzia handiena, helburu bakoitzaren lorpena bertatik pasatzen dela erran daiteke eta. Helbururen bati erreparatuz gero, pobrezia adibidez, ikusi daiteke nola GJH MGHen bertsio hobetu bat diren. Lehenengoek muturreko pobrezia %50ean jaitea lortu zuten bezala, 1,25 dolar eguneko pobrezia mugarekin, gaur egungoek 1,95 dolar eguneko pobrezia muga hartuta guztiz deuseztatzeko helburua dute. Hortaz gain, muturrekoa ez den pobrezia ere kontutan hartzen dute, pobrezia erlatiboaren definizio nazionaletatik abiatuz (hainbat eskubide, baliabide ezberdinetara eskuragarritasuna...) (Sanahuja eta Tezanos, 2017).

Beraz, GJHek MGH kopuruz gainditzeaz aparte aurretik finkatuak zeuden helburuak birmoldatu dituzte, arazoak sakonago aztertuz. Hau da, 17 helburuetako bakoitzak gizarteratzearekin loturiko helmugak ditu MGHek ez bezala. Hobeki ikusi ahal izateko helburu batzuk sakonago azter dira, Nazio Batuen Erakundeak 2019an egindako Garapen Jasangarriaren Helburuen Txosteneko datuak erakutsiaz:

10.helburua da behar bada MGHetik aldaketa dagoela ikusteko helburu garbiena, bertan finkatzen baita gizarteratzearen kontzeptua, pertsonen eta herrialdeen arteko desberdintasun edo arrakaletan barneratuz. Bertzeak bertze desberdintasun horizontalak bezala ezagunak direnei aurre egitea du xede helburu honek, arraza, generoa, adina edo bertze edozein gizarte baldintza. Horretarako zuzenean medioetara jotzen du, legeak, politikak, garapenerako laguntzak... aldatzeko jardunez.

Osasuna ere era zabalago batean jorratzen da, aurretik zeuden zenbait helburu errepikatzen diren bezala, hala nola, amatasunaren heriotza-tasa gutxitu, haurtzarokoa ere, IHESa edo tuberkulosia bezalako gaixotasunekin amaitu... bertze helburu berri batzuk ere finkatu ziren. Sustantzia arriskutsuak, alkohola eta bertze hainbat kontsumo produktu jomugan jartzeaz gain, trafiko istripuak edo kutsadura ere osasun arazo larritzat hartzen dira. Bertzalde, pertsonen

eskubideak ere babesteko konpromezua hartzen da 2030erako oinarrizko sendagaiak lortzeko aukera unibertsala lortzeko bai eta data zehatzik gabe eta beraz, zalantzan jarriz honen lorpena, osasun estaldura unibertsala izatea.

2030 agendak era berean hezkuntzarekiko helburu zabalagoa barneratzen du. 4. Helburuak haur hezkuntzaz gain bigarren hezkuntza, formakuntza profesionala eta hortaz gain kalitate eta emaitza hobegoko hezkuntza ditu helmuga. 2030erako bigarren hezkuntzako estaldura osoa lortu nahi da, bertan garapen jasangarrirako bezala giza eskubide edo bake kulturarako baloreak erakutsi nahi direlarik.

Genero berdintasuna 5. helburuaren bidez lantzen da, oraindik munduan zehar dauden emakumeen aurkako indarkeria, esplotazio sexuala, ezkontza behartuak... borrokatuz. Eskubideen berdintasuna aldarrikatzen da, ordaindu gabeko lanaren aitortzea, leku publikoetan presentzia handiagoa, edo baliabide produktiboen jabetza handiagorako helmugak jarriz. Hala ere erran beharra dago helburu ahula dela, ez baitu data zehatzik edo helmuga kuantitatiborik ezartzen, horrela ondorioetara heltzean hauen "benetako neurketa" ezinezko eginez (Andreu et al., 2019).

8 eta 9. helburuen bidez 2030erako pertsona guztientzako gutxieneko baldintzak betetzen dituen lana lortu nahi da, garapen bidean dauden herrialdeetan bereziki. 2025erako haur lanarekin bukatu nahi da, eta aurtengo urterako ikasi eta lanik egiten ez duten gazteen kopurua hein handi batean gutxitzeko konpromezua hartu zen. 2019ko GJHen txostena begiratu ordea, azken helburu hau lortzeko bidea ez da ongi hartu. Txostenak dioenez, "gainera, gazteek helduek baino 3 bider aldiz probabilitate handiagoa dute langabezia egoteko. 2018. urtean gazteen langabezia tasa %12koa zen, helduena %4a zen bitartean".

Tokiko garapenari ere bere garrantzia ematen zaio 11. helburuarekin, non hiri eta edo dena delako giza komunitate jasangarri, seguru eta inklusiboak eskatzen diren eta 2030erako oinarrizko zerbitzu, garraio publiko eta etxebizitza seguru eta jasangarri baterako aukera unibertsala izatea den helburu.

MGHen ingurugiro agenda eskasa zen, eta GJHek beraz hau asko hobetzeko betebeharra izan dute. Hortaz 2030 agendak bere baitan barneratzen dituen hiru dimentsioak kontutan hartuta (ekonomikoa, ingurugiroarena eta gizartearena) 6. eta 7. helburuak ura eta energia sistema jasangarriak izateko jarduten dute, hurrenez hurren. 2030erako, 2019ko txostenean agertzen denez, sarbide unibertsala lortu nahi da ur edangarria izateko, bai eta komunerako ere. Energiari dagokienez, GJHetan kontzeptu berria dena, energia berriztagarria areagotu nahi da, eta sarbide unibertsala eduki zerbitzu ziur eta fidagarrietara, bertzeak bertze.

12. helburua bereziki herrialde garatuenentzat bideratuta dago, Kontsumoari eta Ekoizpen Iraunkorrari buruzko Programen Hamargarren Esparruko Akordioetan oinarrituta. Bertan 2030erako baliabide naturalen kudeaketa eta erabilera jasangarri bat lortzea da helburu, hondakinen sorrera gutxituz, elikagai soberakinekin batera. Gainera, 2020rako produktu kimiko edo beste hondakin berezi batzuetarako kudeaketa egoki bat lortu nahi izan da arau internazionaleri jarraituz.

Aldaketa klimatikoa indar handia hartu duen arazoa da eta hortaz 13.helburua berekin lotuta dago. Bertan arazo honen aurkako berehalako ekintzak barneratzen dira, Isuriak murrizteko xedeei eta finantzaketa-mekanismoei buruz Klima Aldaketaren Nazio Batuen Konbentzio Esparruan 2015eko abenduan adostutakoaren arabera. 2020rako urteko 100.000 milioi dolar aldaketa klimatikoaren ondorioei aurre egiteko mugitzea jarri zen helmuga bezala, klimaren funts berdearen funtzionamendu osoa bermatuz ere.

Ozeanoak, ureko ekosistemak zein lurrekoak 14 eta 15. Helburuen bidez babesten dira. Bertan itsas ekosistemen babesa eta kudeaketa jasangarri bat aldarrikatzen da 2020rako ozeano eta kosten %10 behintzat babestutako eremu izatera iritsiz. Gainera gehiegizko arrantza eta arrantza ilegalarekin amaitu nahi da, 2025erako itsasoko kutsadura nabarmen gutxituz. "Nabarmen" bezalako hitzekin hala ere helburu hauek indarra galtzen dute, ez baitira helburu edo helmuga objektiboak, hauen bilakaera neurtzeko orduan. Lurreko ekosistemei dagokienez berriz, garrantzi handiena basoen galera eta basamortu berrien kopurua gelditzeari ematen zaio, espezie gehiagoren deusezteia edo espezie arrotzen inbasioak ekiditearekin batera. Gainera 2030erako mendiko ekosistemen mantentzeko konpromezua hartzen da.

Erran beharra dago, nahiz eta modu orokor eta gutxi zehaztu batean izanda ere, 16. Helburua berritasun handienetako bat dela Garapen Jasangarrirako Helburuetan (Sanahuja eta Tezanos, 2017) Helburu honek bake, segurtasun eta gobernantza barneratzen ditu, bere diseinuan eztabaida handia ekarri zutenak. Sentsibilitate politikoa eta behar bada estatu bakoitzaren barne kudeaketa ukitzen zituela eta ez zegoen garbi helburu hau. Horregatik, nahiz eta azkenean aurrera egin, bertako adostasun eta eskakizunak oso txikiak dira. Bortizkeriaren amaiera da hemen helburu nagusia, bere zentzu guztietan (indarkeria, torturak, haurren trafikoa...) bai eta gobernu ona deitzen dena ere, ongizate estatuan, gardentasunean, justizia justuan... oinarritzen dena.

Azkenik 17. helburuak Milurteko Garapenaren Helburuen 8. Helburua jarraitzen du, garapen jasangarri baterako aliantzak indartzeko. Honek helburuaren bilakaera eza adierazten du, bete gabeko helburuen errepikapena izanik. Aliantza hobek lortzeko erreforma baten

beharra ikusten da, eta honek azkenean GJH guztien sinesgarritasun edo lorpena zalantzan jarri dezake. Hala ere koherentzia puntu bat gehiago dauka MGHko 8.helburua baino, garapen politika egokiak eta herrialde bakoitzaren politika espazioa eta lidertza errespetatu behar direla adieraziz, bakoitzak bere ezaugarrietara egokitzen den 2030 agenda diseinatu dezan (Vilches et al., 2014).

Jadanik beraz mundu mailan jasagarritasun helburuak zein diren dakigularik, hauen alde onak eta hobetzeko daudenak aztertu ditzakegu. Asko idatzi da honen inguruan, bakoitzak bere pentsaera duelarik, baina badira hainbat kontzeptu objektiboagoak edo adostasun handia lortzen dutenak. Oro har, GJHek jaso ohi dituzten gorespen eta kritika batzuk hauek izan daitezke, ondoren bakoitzak bere ideak egin ditzakeelarik.

MGHek ongi egin zutenari jarraituz eta bertze ezaugarriren bat hobetuz, hainbat alde on dituzte GJHek. Hasteko, hauen aurrekoek bezala, Garapen Jasagarriko Helburuek garapena era multidimentsional batean ikusten dute, ekonomikotik haratago. Horrela, zalantza ezina den egia bat barneratzen dute: gizakiak inguru fisiko mugatu bat elkarbanatzen duela: Lur planeta (Vilches et al., 2014).

2030 agendak gainera bi agenda bateragarri lotzen ditu: garapen jasagarria eta giza garapena. Modu honetan esfortzuak kontzentratu eta helburuak batzen dira, koherentzia falta ekidinez eta batak bertzeari balio erantsi moduko bat emanez.

Helburu unibertsalak izanik, herrialde bakoitzari garapen politiken diseinua errazten diete, era berean hauek aurrera eramateko mugituko baliabideen eta lortutako emaitzen neurketa eta jarraipena egitea lagunduz. Herrialdeen koordinazioa lortu eta konparaketak egiteko ere balio du. Honez gain erran beharra dago unibertsala izanik herrialde guztiak konpromezua hartzen dutela helburuekiko, MGHekin ez bezala. 2000.urteko helburuek herrialde behartuei egiten zien gehiago erreferentzia, aurreko orrietan azaldutako ondorio negatiboak ekarriz, eta GJH herrialde guztiak zaku berean sartzen ditu kooperazioa eta ekintza kolektiboa indartuz herrialde aberats edo pobreen ezberdintasunak ekidinez. Hau da, ez da herrialde igorle edo hartzailerik desberdintzen.

Azkenik, GJH politikoki ere gizartearen mobilizazioan pisua dute. Elkarlan internazionala eta mundu mailako kontzientziazioa bultzatzen dute aurretik MGHek egin zuten bezala garapen jasagarri batekiko (Vilches et al., 2014).

Hala eta guzti ere, perfekziotik urruti daude oraindik 2030 Agenda honetako helburuak. Hori dela eta, kritikak ere jaso dituzte, jarraian aztertuko direlarik batzuk.

Lehenik eta behin, eta behar bada puntu negatibo larriena, GJHek giza garapen jasangarriaren irudi sinple bat adierazi dezaketela da. Giza garapen jasangarria kontzeptu korapilatsua da, konplexua, hainbat gizarte eremuren ekintza koherentea eskatzen duena politikoki, ekonomikoki eta inguruarekiko. Era erredukzionista batean adieraziz gero, helburuak herrialde guztietan modu mimetiko batean ezarrita, gizarte mota guztien beharrak, arazoak eta konponbideak berdinak direla erran daiteke eta hau akats larria izango litzateke (Gomez, 2018).

Era berean helburu hauek emaitza batzuk lortzea eskatzen dute, “esleipen-arazo” bat sortuz. Helburu global hauek lortzeko herrialde bakoitzak egiten duen ekarpena zehatz kalkulatzeko ezinezkoa da, ez baitago modelo logiko bat beharrezko baliabide eta prozedurak zein diren adierazten duena, eta hortaz komunitate internazionalak osorik egin duen ekarpena da aztertu daitekeena (Andreu eta Fernandez, 2019). Honek herrialde bakoitzaren ebaluazioa egiteko orduan zailtasunak ekartzen ditu, marjina handiak baitaude kalkuluak egiterakoan.

Adierazleei dagokienez, MGHetan bezala adierazle kuantitatiboak garrantzi guztia hartzeko arriskua dago ebaluatzeko errazena izanik, indikatzaile kualitatiboaren balorazioa zailagoa delarik eta beraz, erabilitako prozedura eta lortutako emaitzak distortsionatu daitezke (Cortes-Putch, 2016).

Helburuetako bakoitza aztertu eta ondoren denen ikuspegi orokor bat lortuz gero, ondorioztatzen dena da unibertsaltasunak ere baduela bere alde negatiboa. MGHeKin alderatuta positiboki hartzen da pobrezia edo gosetearen aurkako borrokan herrialde garatuak ere sartzea, baina era berean herrialde garatu horiei mugak jartzen zaizkie helburuen lorpenean. Herrialde ezberdinentzat helburu berberak izateak batentzat bere biziko esfortzua dena bertze batentzat lan handirik egin gabe lortzen dena izan daiteke, eta herrialde horrek orduan ez du bere ekarpena behar bezala gauzatzen. Hau ekiditeko, herrialde garatuetan pobrezia erlatiboko helmugak lehenetsi daitezke, herrialde pobreetan muturreko pobrezia bezala.

Aurreko honekin lotuta, GJHek ez dute kontutan hartzen helmuga batzuk ezinezkoak direla hainbat herrialderentzat, handinahi gutxikoak ere badirelarik bertze batzuetan. Honek herrialde txiroek helburuen lorpenean porrota izateko aukerak handitzen ditu. Hala baina unibertsaltasun kontzeptuarekin jarraituz, estaldura unibertsalak MGHetan gertatzen zen bezala herrialde aberatsak behartuagoi laguntzera eramaten gaitu, laguntza internazional hori saritua izango ez delarik. Horrela izanda zailtasun handiagoa egon daiteke laguntza internazionalaren sistema egoki bat topatzeko (Cortes-Putch, 2016).

Bertze alde batetik, kritikei gehituz, helburu eta hauen helmugen kopuru handia dago, hala nola, Gomezen (2018) hitzetan. Autore honen ustez handinahia izatea ongi dago eta

beharrezkoa da, baina 8 helburu eta 20 helmuga izatetik 17 helburu eta 169 helmuga izatera pasatzeak bere ondorioak ditu. Transakzio kostuak igotzeaz gain, erran beharra dago hainbertze helmuga izanik hauetan egin diren aurrerapenak neurtzea ere zailagoa izango dela, bereziki adierazle fidagarriak lortzeko arazoak daudenean, herrialde pobreetan gehienbat. Horrela, estatistika berriak eraiki eta informazio bilketa erraldoiak egin beharra dago, kostu handiago bat ekarriko dutenak.

Gomezzen ustetan, GJHek ez dute behar duten finantzazioarentzat egokia den pizgarririk lortzen. Bere ustez helburu hauen finantzazioa finantza kargaren banaketa justu baten bidez egin beharko litzateke herrialdez herrialde, baina herrialde aberatsek bereziki ez dute pizgarri nahikoa ikusten baliabide publiko zein pribatu gehiago helburu hauen lorpena bideratzeko.

Gomezek (2018) dioenez arduren sistema egokitu beharra dago. Munduko boterearen banaketa asimetrikoa da eta beraz ardurak ere halakoak behar dute. Horrelako sistema bat nahitaezkoa da benetan Munduko Garapen Jasangarriaren Aliantza bat nahi bada, konfiantza, gardentasuna, elkarrizketa eta emaitzen ebaluazioan oinarrituko dena, arduraren proportzional batekin. Hemen erran nahi dena da herrialde garatuek bere gain hartu beharra dutela GJHen finantzazioan esfortzu handiagoa egitea.

Ondorioz GJHek iritzi kontra jarriak sortzen dituzte gizartean, hauen ideia gehiengo batentzat positiboki hartzen bada ere aurrera eramateko moduak iritzi ezberdin asko sor ditzake eta. Erran bezala, ideia edo helburu hauen intentzioa ona dela pentsatzekoa da, baina badira GJHen kontzeptua bera zalantzan jartzeko arrazioak. Benetan sortu dira gaur egungo bizitza estilo kontsumista eta ez jasangarria aldatzeko, gizartearen arazo larrienak borrokatuz, edo aldaketa hori behar dela uste duen gizartearen zatia lasaitzeko sortuak dira? Ala tarteko zerbait? Erran ohi den bezain bertzeko oihartzuna dute?

“Garapenaren eta iraunkortasunaren arteko dikotomia faltsua da. Planetarik gabe, ez dago balio duen ekonomiarik”. Al Gore, Amerikako Estatu Batuetako 45. Presidenteordea (2007).

Galdera hauek sortzen dituen arrazoi nagusia garapen ekonomikoaren baitan dago. Nahiz eta helburu hauek ingurumena eta gizartearen onurarako sortuak izan eta horretan jarduteko intentzioa eduki, beti garapen ekonomiko baten barruan kokatzen dira. Hots, ingurugiroa eta gizartea diren bi dimentsio horiek errespetatu daitezke, ekonomia hazten den bitartean, dimentsio garrantzitsuena dela ematen duena. Ez da bertze aldera planteatzen: giza eskubideak eta ingurugiroa zaindu, eta ahal bada ekonomiaren garapena ere. Ez. Garapen ekonomikoa bermatzea da garrantzitsua, beti ere bertze bi dimentsioak errespetatuz, baina


ordena horretan. Ez da aipatzen behar bada garapen ekonomikoa bigarren maila batetan kokatu behar dela planeta eta bertako biztanleen ongizatea bermatuaz lehendabizi, agian helburuek aipatzen dituzten arazo askoren konponbidea izan daitekeena. Ekonomiak beti hazi beharra du Garapen Jasangarriaren Helburuen ustez ere, hauen izaera zikindu dezakeelarik arau hautsi ezina dirudienarekin.

Egia izan daiteke helburu hauen bidez 2030 Agenda egiten ari den lana mundu jasangarri eta orekatuago bat lortzeko, baina hain handia den proiektu batek, mundu mailakoa izanik, bere emaitzen eta eraginaren baitan aldeko jarrerak piztea normala den bezala, zalantzak ere sor ditzake beraz. Mundu-mailan duten ezagutza eta harrera nolakoa den jakin ez arren, Euskal Herrian ezagutza zenbatekoa den ikuste aldera inkesta bat egin da 70 pertsonako lagin batean. Inkestan ezagutzaren eta hauen aplikazioaren inguruan galdera motz batzuk egin dira (ikus amaierako eranskina), ondorio orokor batera helduaz.

Erantzun duten 70 pertsonen artean, %61a 15-25 urte artekoa izan da, 26-35 urte bitartean %24 izan delarik eta hortik gora %14a. Sexuari dagokionez %43a izan dira emakumeak eta gainontzekoa gizonak, eta Nafarroa, Gipuzkoa eta Bizkaitarrak izan dira galdetuak. Gehienek unibertsitate-ikasketak eginak dituzte, %70ak zehazki.

Ondorio argiena ateratzeko orduan argi eta garbi ikusi da: parte hartu dutenen artean GJH ez daude presente. %73ak hauen ezagutzarik ez duela erantzun du, inoiz ez duela hauen inguruan ezer ere ez aditu. Hala ere, bitxia da helburuen irudiaz galdetzean %53ak noizbait ikusia duela erantzun duela, irudia garrantzitsu eginez beraz. GJHen inguruan zerbait dakitenek berriz, unibertsitatean edo komunikabideetan entzun dutela adierazi dute.


1 grafikoa - GJHen ezagutza



Helburuen eraginaz inguruan nabaritzen ote den galdetzean, hiru helburu nagusiren eragina adierazteko eskatu da, eraginik nabaritzen baldin bada. Horrela, lautik batek eraginik nabaritzen ez duela erantzun du. Bertzela, eragin nabariena genero berdintasunaren inguruan


izan dela adierazi du zati handi batek, %46ak zehazki, osasuna eta ongizatearen helburua eta kalitatezko hezkuntzarena ere aipatu behar direlarik ere bertzeen gainetik.

3 grafikoa - Helburuen eragina eskualdean




Enpresen eragina aztertzeko, ea helburuak aplikatzen dituzten enpresarik ezagutzen ote duten galdetu da, eta gutxi gora behera hamarren batek baino ez du erantzun ezagutzen duela enpresaren bat helburuak aplikatzen dituen, eta zein enpresa diren galdetzean herrietako denda txikiak, udalak eta Caf, Fagor edo Eroski bezalako enpresa handiak izan dira erantzunak, labore kooperatibaz gain.

4 grafikoa - GJHen aplikazioa burututako enpresen ezagutza



Azkenik GJH eskualdearen garapenerako garrantzitsuak ote diren jakin nahi izan da, eta zein helburuk izango lukeen lehentasuna. Bortz helburu aukeratzeko eskatu da, genero berdintasunaren helburua izan delarik bozkatuena, osasuna eta ongizatea eta kalitatezko hezkuntzarekin batera, hots, eragin nabariena zeinetan sumatzen den galdetzean atera den erantzun berbera. Hauen ondotik, energiaren, lan duina eta hazkunde ekonomikoaren, ekoizpen eta kontsumo jasagarrien eta klima aldaketaren helburuak izan dira aipatuena.

5 grafikoa - GJHen garrantzia eskualdeko garapenean



Hortaz, helburuen ezagutza txikia dela izan da ateratako ondorio nagusia. Mundu-mailako ekimena izanik, gizartera heldu ez izana porrot bezala hartu daiteke, baina egia da ere helburuen xede nagusia beraien aplikazioa izanik mundu osoan, lehenengo herrialdeetako gobernuek barneratzeko beharra dagoela, eta hauek gizartean zabaldu. Bertzetik, gazteak izan direlarik galdetutako pertsona gehienak, hauen ezagutza-maila hazten joan beharra dela argi dago, etorkizunari begirako helburuak izanik gazteak baitira berez interes handiena izan beharko luketenak.

GJHen ezagutza zutenen artean komunikabideez gain unibertsitatea aipatu da jakintzaren iturri gisa, eta hau kontutan hartzeko modukoa da. Unibertsitateek sentsibilizazioa eta ezagutzan zer erran handia dute, eta hauen lanketa garrantzitsua da jendearen kontzientziazioan. Euskal Herriko Unibertsitatearen Donostiako Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzaren egoitzan adibidez helburuen irudiak presente daude, eta faktore bisuala garrantzitsua dela ikusi da inkesta honen bidez. Ezagutza-maila eskasa izanda ere irudiarekin lotura handiagoa du jendeak inkestaren arabera, eta kontzeptuak lotzeko tresna ona dela ikusi da beraz.

Inguruan eragina nabarmena denik ezin errango da, baina azken finean Euskal Herrian garrantzia ematen zaie 2030 Agendako helburu batzuei hauen ezagutza izan ala ez, eta beraz inkesta egindakoek genero berdintasuna bezalako arazoak lantzen direla adierazi du. Enpresen aplikazioaren inguruan berriz ezagutza maila eskasa izanik hauen aplikazioaren inguruan jakitea zaila da. Enpresa gutxi batzuk aipatu dira, denak ere publikoak edo kooperatibak direnak CAF

izan ezik, eta denda txikiak ere aipatu dira, hauek kontsumo jasangarri baterako garrantzia dutela ondorioztatzen delarik.

Helburuen lehentasuna edo bakoitzaren garrantziari dagokionez azkenik, herri honetan gosea edo pobrezia arazo larriak ez diren heinean, jendeak hezkuntza, osasuna eta genero berdintasuna ditu lehentasun nagusi. Edozein herrialdek gaur egun klima aldaketaren borroka lehen mailako arazotzat izan beharko lukeela pentsatzekoa da ere, eta hortaz helburu honi eman zaion garrantzia uste baino motzagoa izan da.

Ondorioz eta hitz gutxitan laburtuta, ezagutza-maila eskasa gazteen artean bereziki aipatzekoa da, unibertsitateek egin dezaketen lanari garrantzia eman beharra zaio, eta helburuen lehentasunak finkatzeko herrialde bakoitza mundu bat izanen dela ondorioztatu da, tokian tokiko arazoen arabera izanik hauen balorazioa.

Garapen Jasangarriaren Helburuen mugak eta kritikak alde batera utzita hala ere, erraza baita kritikatzeko baina ez praktikan mundua konpontzea, hauen ekarpena positiboa dela ikusi daiteke. Mundu-mailan herrialde guztiek ingurugiroa eta giza eskubideengatik lan egiteko konpromisoa hartzea zaila bezain korapilotsua da, eta helburu hauen bitartez gobernu guztiek daukate garapen jasangarri baten gida unibertsal bat eskura. Horrela gainera, Nazio Batuen Erakundeak naturan, ekonomian eta gizartean dituen eraginak neurtzeko tresna baliotsua du, garapen jasangarri bat lortzeko pausuak zein erritmotan egiten ari diren ikusteko.

Halaber, eredu egokia izan daiteke entitate baten jarduna aztertzeko bertze ikuspuntu bat ematen dutelarik, kontzeptu ekonomikoetatik haratago. Lan baldintza duinak, gizartearentzat sortzen den onura, genero berdintasuna zenbat lantzen den... entitate bat hainbat arlo ezberdinetatik aztertzeko aukera ere ematen du, helburu unibertsalak direlako, edozein pertsona, entitate eta herrialderentzat.

Hau horrela, eta nahiz eta ezagutza-maila eskasa dela ondorioztatu den, herrialdeetan gobernuak ematen dieten garrantzia aztertu behar da Garapen Jasangarriko Helburuen eragina ikusteko orduan. Hauen aplikazioa herrialdeetako goi organoetatik hasi beharra da ondoren pertsona oroengana iritsi ahal izateko helburuen oihartzuna.

2.5. GARAPEN JASANGARRIRAKO HELBURUEN APLIKAZIOA LURRALDE EZBERDINETAN


Helburu hauen lorpena estuki lotua dago herrialdeen ahalmen eta konpromezuarekin. Ez dirudi erreala 2030 agenda ongi betetzen ahal denik, eta hau zenbait herrialde handien

agintariak ikusi hutsarekin igarri daiteke. Aldaketa klimatikoa bera zalantzan jartzen badute zenbaitek, zaila izango da arazo honen aurka jardutea, bertzeak bertze. Ezberdintasun nabariak aurkitzen dira herrialde batetik bertzera GJHen betetzean, jarraian ikusiko den bezala.

Mundu mailan ez dago herrialderik 2030erako helburu guztiak beteko dituela ziurtatuko duenik. Gaur egun Europar Batasuna da helburuen betetzerik altuena duena Nazio Batuen 2019ko helburuen inguruko txostenaren arabera, baina hobetzeko asko du oraindik ere. Txostenaren arabera, Danimarka, Suedia eta Finlandia dira helburuak betetzera gehien hurbiltzen direnak. Hala ere, herrialde bakoitzak bere puntu indartsuak eta ahulagoak ditu.

Nahiz eta EB liderra izan helburuen betetze honetan, gabezia handiak ditu. Pobreziaren desagertzea eta osasunaren arloan ongi doan arren, kontsumo jasangarria edota ur azpiko biziaren irautean mundu mailan ez dago herrialderik okerrago dagoenik. Hori dela eta, 3 eszenatoki planteatzen ditu hurrengo urteetarako: herrialde bakoitzari helburu zehatzagoak definitzea, GJHk erabaki politikoetarako inspirazio soil hutsa jarraitzea edo esfortzua atzeratuenean dauden herrialdeei laguntzen finkatzea. Lehen begiratuan behintzat, lehenengo eszenatokiak du bidea hobetze aldera zerbait egiteko aukera helburu horiek betetzeko zorrotz bultzatuz gero herrialde kideak. Txostenean estrategia berrien garapena bultzatu nahi da, 2050erako EBeko energia-sistema deskarbonizatu edo ekonomia zirkularra indartzeko asmotan bertzeak bertze, baina honako honetan ere ematen duenez hitz hutsak dira oraingoz.


4 irudia - GJHak Europar Batasuneko herrialdeetan



Iturria: UNSDSN eta IEEP (2019).

Espainiar Estatuak beraz EB-ko batz besteko inguruan kokatuko litzateke helburuen betetzeari dagokionez, eta beraz, 2030erako helburuak betetzetik oso urruti legoke. 2020 arteko gobernuek ez diote batere garrantzirik eman 2030 Agendari, txosten eskasak erakutsiz eta aurrekontuetan GJH barneratu gabe, nahiz eta Nazio Batuen batzarrean Espainiar Estatuak konpromiso hori hartu. Erran beharra dago hala ere 2020ean onartuko diren aurrekontu berrietan helburuak barneratuko direla eta presidenteordetzaren maila eman zaiela, Iglesias presidenteordeak 2020ko irailaren 22an senatuan adierazi zuenez. Iglesiasek gaineratu zuenez txosten bat egin da helburuen betetzearen diagnostiko bat ateraz, 2020tik 2030era egin beharreko bidearen oinarria zein den jakiteko eta Nazio Batuek egiten duten azterketa boluntariora aurkezteko konpromisoa hartu da 2021erako. Horrela ikusita bide ona hartu dela erratea erraza da, baina hobetzeko hainbortze izanik ez da zaila bide hobe bat hartzea. Ikusiko da urteen poderioz bide ona hartu ote den.

5 irudia - GJHak Espainiar Estatuan



Iturria: AIS Group (2019).

Ikusi daitekeen bezala, Espainiar Estatuan bertan diferentzia nabarmenak daude autonomia erkidego batetik bertzera ere.

Jasangarritasun-behatokiak (Observatorio de la Sostenibilidad, OS), adierazleak eraikitzen aditua den AIS Group aholkularitzak eta *Fundacion Ciudadana*-k egindako 2019ko

Espainiako jasangarritasunaren inguruko azterketaren 17x17 txostenaren arabera, Nafarroa eta Euskal Autonomia Erkidegoa dira Espainiar Estatuan GJHen betetze-maila hoberena dutenak. Horretarako, txostenak 200 adierazle erabiltzen ditu Autonomia Erkidego bakoitza 17 helburuetara zenbat hurbiltzen den ikusi eta hauen artean konparatzeko.

Euskal Autonomia Erkidegoari dagokionez, GJH 175 konpromisotan banatuta ditu, 650 ekimenez osatuta. 2016-2020 legealdiko konpromisoak programa irekian daude eskuragarri, bakoitzerako zer egin den edo diseinatu den adierazten delarik (Eusko Jaurlaritza-Agenda Euskadi Basque Country 2030, 2018a) 2017-2019 urteetako jarraipen txostenak begiratzuz gero, datu asko agertzen dira bertan, baina ondorio gutxi. Helmugak, hauek lortzeko jarduerak... zein diren agertzen dira eta zer egin den, baina hauekin zein emaitza lortu den edo hobeki erranda, emaitza hauek 2030erako helburuak lortzeko nahikoa izango diren ez da aipatzen, hau da, balorazio orokor bat egin ahal izateko datuak eskas gelditzen dira. Hortaz gain, *Maila Anitzeko agenda* dago, non bertan Erakunde arteko Lan Talde Operatibo batek, Eusko Jaurlaritzak, Arabako, Gipuzkoako eta Bizkaiko Foru Aldundiek eta Bilbo, Donostia eta Gasteizko Udalek osatzen duten agenda bateratua dagoen, modu koordinatu batean jarduteko lanean, lurralde bakoitzaren idiosinkrasia eta berezitasunak errespetatuz. Idea hau 17. Helburuaren baitan dagoela erran daiteke, gobernuen arteko aliantzak etab., nahiz eta tokiko gobernua izan (Eusko Jaurlaritza-Agenda 2030 Euskadi Basque Country, 2018b).

Nafarroaren kasuan berriz, 72 helmuga jorratzen dira 68 plan estrategikoren bitartez, tartean Garapenerako Lankidetzeta-plana, koordinazioa eta elkarlanerako erraztasuna bilatzen dituen erakundearen artean. Nafarroako 2030 agendak Nafarroaren egoera aztertzean, garapen jasangarriak hartzen dituen 3 dimentsioen inguruan aipatzen da garapen sozial eta ekonomikoari dagokionez Espainia eta Europaren batz bestekotik gora dagoela, baina ingurumen-garapena berriz Europakoaren parekoa duela. Bertzela agendak berak antza handia du EAEkoarekin, baina kasu honetan datuak ikusteko orduan errazago atera daitezke ondorioak, helburu eta bertako helmuga bakoitzaren datuak ikusi eta Europakoekin alderatzen direlako, horrela zer konparatuta edukita hauen eraginkortasuna ikustea errazagoa izanik. Hala ere erran beharra dago Europako batz bestekoaren gaintik egotearekin zenbait arlotan, ez duela erran nahi helburuen betetze-maila ona dela ere (Nafarroako Gobernua, d.g.).

Ondorioz, gurean GJHen betetzea Europako batz bestekotik gora dago eta Espainiar Estatuko emaitza hoberenak eman ditu, baina 2030 agenda behar bezala bete ahal izateko mundu osoko herrialde guztiak bezala, konpromiso eta ardurak hartzeko beharra dago oraindik.

Edozein herrialdetan, gobernuaz gain, helburuen betetzean zer erran handia du sektore pribatuak, eta bereziki, Hirugarren Sektoreak. Sektore honetako entitateek helburuekin lotura izaten dute, gizartearen onura baitute helburu. Hala izanik, sektore honen ezagutzan oinarri bat izatea ezinbertzekoa da, entitate hauen garrantzia ikusteko Garapen Jasangarriaren Helburuen ikuspegitik. Jarraian beraz Ekonomia Soziala eta Hirugarren Sektorea kontzeptuak zer diren eta nola osatzen diren aztertuko da.

3. EKONOMIA SOZIALA ETA HIRUGARREN SEKTOREA

Ekonomia Soziala edo Gizarte-Ekonomia, interes orokor ekonomiko edota soziala xede duten entitateek egiten dituzten enpresa-jarduera eta jarduera ekonomikoen multzoa da, botere politiko edo publikotik at. Bertan pertsonak kapitalaren ginetik jartzen dira, garrantzia emanaz norbanakoari bai eta kudeaketa garden, demokratiko eta parte-hartzaileari. Bertako garapena, berdintasuna gizon eta emakumeen artean, lanpostu egonkor eta kalitatezkoen sorrera, jasangarritasuna... aldarrikatu eta helburutzat jartzen dira.

Ekonomia sozialeko enpresa batek arrazionaltasuna eta gizartearen garapena bat etor daitezkeela irudikatzen du, enpresa errentagarri batek gizarte erantzukizuna aplikatu dezakeela, hau da, enpresa egiteko bertze era bat posible dela (Cepes, d.g.).

Hainbat entitate ezberdinek osatzen dute Gizarte-Ekonomia, kooperatibak, lan sozietateak, mutualitateak... izan daitezkeenak. Hemen baina, nahasmena sortzen da Gizarte-ekonomia, Hirugarren Sektorea deitzen dena eta Irabazi Asmorik Gabeko Entitateen artean. Bakoitza zeinek osatzen duten, zein ezaugarri dituzten eta bertan sartzeko baldintzak zein diren finkatzeko garaian adostasun eza ikus daiteke.

Monzonek (2006) idatzitako artikulua batetan ongi azalduta dago zein den sektore hau definitzeko garaian problema eta honen laburpen txiki bat eginen da orain. Monzonek bertan dioenez, gizarte-ekonomia hainbat entitate sozioekonomikok osatzen duten multzoa delarik, gizarte talde ezberdinen beharrak asetzeko helburuarekin, IAGEn ezaugarri nagusia bertako etekinak bertan berrinbertitzearen ezaugarria da, inoren aberastasuna handitu beharrean, eta ezaugarri hau ez da oinarritzkoa Ekonomia Sozialean. Hau horrela, Hirugarren Sektorea osatzeko garaian bi kontzeptu horiek adostasun falta dute. Hirugarren Sektore hau zer den azaltzeko garaian, Monzonek hau azaltzen du:

“Gizarte-ekonomia eta non profit sektore kontzeptuek “hirugarren sektore” izendapena ere hartu izan ohi dute. Estatu Batuetan Levitt (1973) izan zen hirugarren sektorea esamoldea

erabiltzen lehenetarikoa (1973an Rockefeller Fundazioak irabazi-asmorik gabeko sektorearen garrantzi ekonomiko, sozial eta politikoari buruz babestutako ikerketa hastearekin bat etorriz), zeinak irabazi-asmorik gabeko sektorearekin identifikatu zuen. European hirugarren sektorea terminoa erabiltzen da sektore publikoaren eta sektore kapitalistaren artean kokatutako sektore bat deskribatzeko, eta sektore hori ekonomia sozialaren kontzeptuarekin identifikatzen da.”

Hirugarren Sektorea gainontzeko sektoreetatik desberdintzen den eragile ekonomikoen multzoa dela, giza kapitala kapital ekonomikoaren aurretik jartzen dutena eta garapen ekonomikoa gizartearen garapena eta garapen jasangarri batekin uztartzen dutena dela bai Gizarte-Ekonomiak bai eta IAGEk adierazten dute. Hala baina, badituzte pare bat diferentzia sendo, eztabaida sortzen dutenak.

Irabazi Asmorik Gabeko Entitateen ikuspuntutik, 3. Sektorea definitzean 5 ezaugarri nagusi sartzen dira: entitate pribatuak, formalki antolatuak, erabakitze ahalmenarekin, atxikimendu askatasunarekin eta nola ez, irabazi asmorik gabeak. Gizarte-Ekonomiaren ikuspuntutik berriz, 5 ezaugarri horietatik 4 kontutan hartzen diren arren, irabazi asmo eza ez da barneratzen HS definitzeko orduan. Gainera, bertze bi ezaugarri eskatzen ditu Gizarte Ekonomiak Hirugarren Sektorea definitzeko, enpresan demokrazia eta pertsona fisikoei zerbitzua direlarik.

Monzonek dioenez, adostasuna duten lau ezaugarri horiek edozein enpresari aplikagarriak dira, eta beraz, Hirugarren Sektorea osatzeko eskas gelditzen dira. Irabazi Asmorik Gabeko Entitateen ikuspegitik, irabaziak ez banatzean dago soilik gakoa, errentagarritasun finantzarioa ez da helburua, eta Hirugarren Sektorean sartzeko baldintza Nagusia hori izango litzateke. Horrela beraz, kooperatiba eta mutualitateak bertzeak bertze Hirugarren Sektoretik at geldituko lirateke, Gizarte-Ekonomiaren zati garrantzitsua direlarik. Gizarte-Ekonomiaren ikuspuntutik berriz, Irabazi Asmorik Gabeko Entitateez gain demokraziaren kontzeptua bete eta helburu nagusizat pertsona fisikoei zerbitzua ematen dieten enpresak sartzen dira, irabaziak izatean berdin duelarik hauekin zer egiten den. Hortaz, ezaugarri hauek betetzen ez dituzten Irabazi Asmorik Gabeko Entitateak Hirugarren Sektoretik kanpo geratuko lirateke.

Laburbilduz, Hirugarren Sektorea zer den eta bertan zein eragile sartzen diren ongi zehaztea zaila baldin bada ere, jakin beharra dena da sektore honetako entitate guztiak gizartearen ongizatea dutela xede nagusi eta pertsonak kapitalaren aurretik jartzen dituztela, nahiz eta gero baldintza zehatzagoak direnak nahasmena sor dezaketen bertan sartzeko.

Sareen Sareak (d.g.) Euskadiko hirugarren gizarte-sektoreak bere web gune ofizialean adierazten duenez, Hirugarren Sektorea formalizatuta eta jardunean dauden gizarte zibilaren

ekimen guztiek osatzen duten multzoa da, kudeaketa-autonomia eta independentziaz, irabazi-asmorik gabe eta oro har, borondatezkoak direlarik. Beren jarduera lurralde jakin batetan eta lurralde jakin batetik garatzen dute, eta beren jarduera ongizate sozialera bideratzen dute zentzu zabalean.

Azken horrek gizarte-ingurunea hobetzea helburu dutela erran nahi du, honako hauei erantzunez: behar sozialak eta herritarren bizi-maila hobetzen laguntzea era askotariko esparruetatik: kultura, gizarte-ekintza, ingurumena, kirola...etab.

Era berean, gaur egungo Euskal Autonomia Erkidegoko datuak azaleratzen dituzte: 3.500 entitate inguruk osatzen dute hirugarren sektorea, 36.000 langile kontratatu daudelarik 125.000 langile bolondresekin batera. Erkidegoaren BPGaren %2,2a ordezkaten dute.

Nafarroaren kasuan, Nafarroaren Ekonomia Gizarte Enpresa-Konfederazioa dago, Nafarroako Gizarte Ekonomiaren arloko familiak ordezkaten dituzten erakundeak biltzen dituena. Gaur egun honako erakunde hauek biltzen dira bertan: ANEL, lan elkartuko sozietateak eta kooperatibak biltzen dituena; UCAN, nekazaritzako elikagaien kooperatibak; CIS elkarteak, gizarteratzeko eta laneratzeko zentroak; eta Nafarroako Fundazioen Elkarteak, fundazioak biltzen dituena.

Gizarte-Ekonomia printzipio batzuei lotuta ezartzen du, pertsonak lehenestea, kudeaketa demokratikoa eta parte-hartzailea, lankidetzak, gizarte-kohesioa eta lurraldearekiko konpromisoa direlarik.

Konfederazioak emandako datuen arabera, gaur egun Nafarroan Gen 1.064 entitate daude, 16.430 langilerekin, lurraldearen BPGaren %11,1 sortzen dutelarik. Gainera, lanpostu pribatuen %7,3a ordezkaten du, kontratuen %77a mugagabea delarik, %45a emakumezkoak eta 2.000 milioi euroko fakturazioarekin (Cepes Nafarroa, d.g.).

Espainiar Estatuan berriz Cepesen (d.g.) arabera, 2019an 43.192 entitate zeuden sarturik Gizarte-Ekonomiaren barruan, 2.184.234 lanpostu zuzen edo zeharkako sortuak zituztelarik. Bitxikeria gisa, Espainiar Estatu mailako Hirugarren Sektoreko entitate garrantzitsuenak, fakturazioaren arabera, hauek dira:

2 taula - Gizarte Ekonomiako enpresa garrantzitsuenen ranking-a

Entitatearen Izena	Mota	Lurraldea
MUTUALIDAD ABOGACÍA	Mutualidades	COMUNIDAD DE MADRID
HNA	Mutualidades	PAÍS VASCO
BASKEPENSIONES, E.P.S.V.	Mutualidades	PAÍS VASCO
LAGUN ARO, E.P.S.V.	Mutualidades	COMUNIDAD DE MADRID
MUTUAL MEDICA	Mutualidades	PAÍS VASCO
GEROA PENTSIOAK, E.P.S.V.	Mutualidades	PAÍS VASCO
EUSKADIKO PENTSIOAK, E.P.S.V.	Mutualidades	PAÍS VASCO
ELKARKIDETZA, E.P.S.V.	Mutualidades	PAÍS VASCO
ALTER MUTUA	Mutualidades	CATALUÑA

Iturria: Cepas (d.g.).

Mutualitateak dira beraz Hirugarren Sektorean pisu handiena duten entitateak fakturazioari dagokionez, nahiz eta entitate mota honetakoak %0,52a baino ez izan sektorearen barruan, Cepasen (2019) arabera. Hala ere, mutualitateak aseguru-etxeak diren heinean, pentsatzekoa da hauen fakturazio-bolumena izatea sektore honetan handiena diferentziarekin.

Hirugarren Sektorea eta Ekonomia Soziala zer diren edo zer barneratzen duten ikusi ondotik, lan honetan erran bezala Irabazi Asmorik Gabeko Entitateetan murgilduko gara, hauen inguruan jardunez. Hirugarren Sektoreko zati garrantzitsutzat hartuko ditugu, bertan sartuaz, eta jarraian hauen ezaugarri propioak aztertuko ditugu.

4. IRABAZI ASMORIK GABEKO ENTITATEAK

Irabazi Asmorik Gabeko Erakunde bat norbere onura ekonomikotik at bertze helburu bat duen erakunde mota da, gehienetan gizartearentzat onura bat dakarren helburua duelarik, artistikoa, soziala, komunitarioa, altruista... izan daitekeena. Erakunde hauek ez dute ez irabazi eta ez galera handirik sortu behar, eta edozein arrazoi dela eta irabaziak izaten badira, hauek ez dira bazkideen artean banatzen baizik eta entitatean bertan berrinbertitzen dira (Guías Jurídicas Wolters Kluwer, d.g.).

Definizio labur hau eman ondotik, erran beharra dago Irabazi Asmorik Gabeko Entitateen definizio zehatza lortzea zaila dela, sektore honetan dagoen terminoen dibertsifikazio handia dela eta. Argi dagoena da mota honetako entitate bat ez dela sortzen irabazi

ekonomikoak lortzeko balore etiko batzuk mantentzen diren bitartean. Entitate hauek balore horiek babestu eta helburu jakin bat lortzeko sortzen dira eta nahiz eta oinarrizko funtzionamendu bat izateko etekin bat beharko den, ez da inondik ere helburutzat hartzen etekin ekonomikoa lortzea aberasteko helburuarekin. Hala ere, ez da nahastu behar; bada ohitura entitate mota hauek eskaintzen duten zerbitzua doakoa dela pentsatzeko, baina bertze edozein enpresak bezalaxe kobratu dezakete eta gehienetan behar dute. Diferentzia hortik ateratako irabaziak entitatean berrinbertitu behar direnean dago, honen bizirautea bermatzeko.

Aipatutako oinarrizko funtzionamendu hori izateko, entitate hauek diru laguntzetara jotzeko beharra izaten dute askotan, ziurgabetasun puntu bat sortu ohi duena. Agintaritza publikoak jarduera hau aitortzen du, eta hortaz diru laguntza ohikoena publikoa izan ohi da, askotan denak asebetetzeko nahikoa ez dena. Diru laguntza publikoa beti ere entitate hauek egiten duten gizarte lanketara lotuta dago, eta abantaila fiskalak, kredituak... eta bertze zenbait aukerak osatzen dute laguntza hori. Gizarteari eskaintzen zaion lanketa eskasa baldin bada, laguntza hauek lortzeko aukeratik at gelditu ohi dira entitateak. Hortaz, nahiz eta diru etekinak ateratzeko presio hori ez eduki bertze hainbat presio ere izaten dituzte enpresa mota hauek beraien jarduera aurrera eramateko orduan (Serpa eta Rojas, 2008).

Hortaz gain, diru laguntzez bizi direlarik, laguntza horiek aprobetxatzeko betebeharra daukate Irabazi Asmorik Gabeko Enpresek. Zilegi da norberak irabazitako dirua ez dena lortuz gero, diru hori ongi kudeatu eta arduraz jokatzeko eskatzea, bereziki kontutan hartzeko moduko kantitateak jasotzen badira sektore publikotik. Gobernuak ez daude entitate hauei diru-laguntzak ematera behartuak, eta beraz enpresa hauek profesionaltasun eta emaitza batzuk erakutsi behar dituzte. Hau da, euren kabuz bizirautea heltzera iristen saiatu behar dira edozein enpresa pribatu bezala, horrela baldintzapean ez egoteko (Ribas Bonet, 2001).

Aipatu bezala diru-laguntzak funtsezkoak direnez, IAGEak konfiantza publikoa zaindu behar dute zuzentasun, gardentasun eta ardura erakutsiaz, baliabide eta estrategiak ongi kudeatuz. Serpa eta Rojas (2008) Irabazi Asmorik Gabeko Entitateetan aditu diren dotoreek Leslie Howard, dohaintzatan aditua denaren hitzak erabiltzen dituzte, emaile gehienek entitatearen gardentasunari begiratzen diotela adieraziz, kontu emateari, bere historia eta lidergoaz gain. Gainera, komunikazioaren garrantzia handia dela aipatzen da artikuluan, askotan gutxiesten dena. Jarraitzen du, "emailearekin komunikazio estu bat edukitzea entitatearen giza kapitalean ohiko praktika izan behar da, emaileen beharrak eta nahiak ezagutu eta ase ahal izateko. Emaileen Eskubideen Adierazpena betetzea garrantzitsua da. Dokumentu honek bertzeak bertze emaileek beren dohaintzengatik zer espero dezaketen erraten die, eta beren eskubideez informatu".

Ondorioz, diru-laguntzen afera garrantzi handikoa da enpresa hauetan, beren funtzionamendua eta bizirautea askotan hauen baitan egoten baita eta beraz, estrategia eta zainketa egokiak izan behar dituzte ahalik eta diru-laguntza hoberenak lortzearren. Hona hemen Hirugarren Sektorereko erakundeen finantzaketaren inguruko informazio interesgarria.

3 taula - Finantzaketa mota bakoitzak Hirugarren Sektorereko erakundeen guztizko finantzaketarekiko duen ehunekoa


Finantzaketa mota	2018	2013	2010	2008
Finantzaketa publikoa	41,4	55,3	60,0	61,3
Finantzaketa pribatua	26,0	19,4	18,2	23,9
Finantzaketa propioa	32,6	25,3	21,8	14,8
Guztira	100	100	100	100
Base (n)	1.003	342	415	676

Iturria: Plataforma de ONG de Acción Social (2020).

Ondorioz, finantzaketa publikoa azken urteetan jaitsi bada ere, sektore honetako entitateetan ezinbertzekoa dela ikusi dezakegu. Hala ere finantzaketa propioaren gorakada positiboki balora daiteke, diru-laguntzen menpekotasuna murrizten baita horrela.

Bertze adar batera joz, Irabazi Asmorik Gabeko entitate batek Carrol-ek aipatutako 4.mailako erantzukizunak ere bete beharra ditu. Bertze edozein motatako edozein enpresak bezala, gainontzeko hiru mailetatik gain (ekonomikoa, legala eta etikoa) entitate hauei filantropikoa edo soziala dena ere eskatu beharra zaie, erantzukizun hau berea bezala hartzen baitute. Gainera, erantzukizun honen baitan sortzen dira entitate hauek, gizarteak hori espero du beraiekiko, are gehiago laguntza publikoak jasotzen dituztelarik. Beraz, bereziki sartuko lirateke hemen sektore publikotik diru kantitate handiak lortzen dituzten enpresak (Ribas Bonet, 2001).

6 irudia - Carrol-en piramidea



Iturria: Uniagustiniana (2010).

Ribas Bonetek (2001) Diana Leat autorearen hitzak sartzen ditu bere artikuluan: “erantzukizunaren kontzeptua onura publikoaren nozioan oinarritzen da. Onura publikoa fiskal edo legala ere izan daiteke ekonomikoaz gain, eta hauek arrazoi garrantzitsu bat izan daitezke entitateei publikoki erantzule arduratsuak izateko behartzeko momentuan.” Ondotik, bertze zenbaitek bezala barne eta kanpo erantzukizunak ezberdintzen ditu Ribas Bonetek, beti ere IAGEen izaera sozialaren baitan:

- “Mota honetako entitateak Estatuaren erantzukizuna diren hainbat zerbitzu estaltzeko zati garrantzitsua izatera pasa dira, hauen errendimendua eta eraginkortasuna hobetzera behartuz”.
- “Gainera, enpresa hauek kontratatutako pertsonala handitu dute, baina pertsona horiek ez dira entitatearen jarreraren erantzuleak. Langileenganako erantzukizunari garrantzia eman beharko litzaioke”.
- “Kontsumismoak bezeroen eskaera kontutan hartzea eramatean du. Enpresa mota hauek batzuetan komunitatearen edo bezero talde baten ordezkari bezala ager daitezke”.

Horrela, hiru erantzukizun gradu edo mota ditugu: azalpen erantzukizuna (azalpen bat ematera behartzen duena), isun erantzukizuna (azalpenak ez dutenean baliorik), eta erantzukizuna erantzule den horien aurrean, eskaerari erantzunez.

Ribas Bonetek (2001) gaineratzen duenez, erantzukizun horiek ere kontutan izanez gero, kontabilitate tradizionala eskas gelditzen da mota honetako enpresetan, hauen irudi fidela eta enpresak sortzez gizartearekiko duen lotura isladatzeko. Capron eta Leseul autoreak aipatzen ditu, enpresen ekintzak neurtzea behar bat dela diotenak. Hauek adierazten dutenez, ebaluatzeko beharra, gardentasuna eta komunikazioa garrantzitsuak dira. Hartutako erabakien kalitatea eta eraginkortasuna neurtu beharra dagoela diote, eta era berean, eragin negatiboak ere aztertu enpresa eta bere baloreak zenbaterainoko lotura daukaten ikusteko.

Aipatutako behar horretatik dator gizarte balantzea edo balantze sozialaren kontzeptua. Kasu honetan Saenz de Mieraren hitzak aipatzen dira artikuluan, balantze soziala enpresak gizarteari aurkeztu dakioken informazioa dela erranaz, legalki Estatuari eman beharrekoagatik at, bere funtzio sozial edo baloreen betetzea erakusteko. Hau da, gizarte ekintzen inguruko kontu-emate bat da, enpresak bere helburu soziala lortzeko duen gaitasunaren islada baita. Are gehiago, balantze soziala enpresaren izateko arrazoia edo bere nortasunaren arrazoitze garbiena da.

Balantze mota hau lantzeko unean ordea zailtasun gehiago sortu daitezke zenbait kasutan, bertzeak bertze, adierazi nahi diren balore guztiak ez baitira izaten termino monetarioetara eramateko errazak. Indikatzaileak egon badaude, baina hauen erabilera txikia da, enpresa bakoitzak bere modura egitera jotzen baitu. Bertze aldetik, balantze hauek egiteak kostu handi bat sortu diezaioke enpresari, denboran zein ekonomikoki, atzera botatzen duten arrazoiak direlarik. Baina orokorrean dagoen arazo handiena, balantze mota honen erabilera eskasagatik, bere estandarizazio falta da. Salas Puig-en hitzak datoz artikuluan, eta honek baieztatzen duenez, balantze soziala terminoaren operatibizazioa ahuldu egiten da, azken finean definitu gabeko kontzeptu aldakor bati lotzen zaiolako, edo, zehatzago, definizio gehiegi dituelako. Bere ustez kontzeptua ez dago erabat onartuta, eta, edonola ere, enpresaren erantzukizun soziala enpresaren beraren mende dagoela erraten du, hasiera batean.

Laburbilduz, irabazi asmorik gabeko enpresa baterako beharrezkoa dela erran daiteke balantze mota hau, benetako irudi fidel bat lortu nahi bada. Azken finean, kontabilitate tradizionala iristen ez den tokitara ailegatzen da, entitateak bere helburu soziala lortzeko egiten duena plazaratuz. Horretarako, gaur egungo kontu emate sistema garatu beharko litzateke, oraingoz zentzu honetan motz gelditzen baita, hau da, balantze soziala egiteko tresna eta laguntza gehiago behar da.

Behin Irabazi Asmorik Gabeko entitate bat zer den, nola funtzionatzen duen eta bere hainbat ezaugarri aztertu direnez geroztik, bere inguruko oinarri bat lortu da. Hala ere, bertze

duda batzuk ere izan ditzakegu. Askotan nahastu ohi dira IAGE, GKE, Fundazioak... kontzeptuak. Zer da bakoitza?

Hasteko, Irabazi Asmorik Gabeko Entitate bat juridikoki, hiru motatakoa izan daiteke: Elkartea, Fundazioa edo Irabazi Asmorik Gabeko Kooperatiba. Hirurak ere ezaugarri amankomun anitz dituzte, ezberdintasunak ezberdintasun. Hiru horietatik abiatuta hala ere, bertze hainbat formulatako IAGE aurki ditzakegu, Federazioak, Konfederazioak, etab. (Garcia, 2018).

- **Elkartek** pertsona fisiko nahiz juridikoz eratutako erakundeak dira, interes orokorreko zein partikularreko helburuak izan ditzaketelarik, kasu honetan irabazi asmorik gabeak, noski.
- **Fundazioak** ere pertsona fisiko nahiz juridikoz eratutako erakundeak dira, baina kasu honetan interes orokorreko helburuak soilik dira hauen izatearen arrazoia.
- **Kooperatibak** berriz, elkarte baten sozietate-forma juridikoa da, non ekoizpen baliabideak eta lana bazkideenak diren, eta bertan beharrezko jarduerak egiten dira helburu sozial batzuk lortzeko.

Hiru mota horiek ezagututa, federazioak, mutualitateak, Gobernu Kanpoko Erakundeak... bezalako kontzeptuek nahasmena eragin diezaiokete gaiaren inguruan jakintza handirik ez duenari.

- *Federazio* bat hainbat elkartek osatutako elkartea da, pertsona juridikoz osatuta dagoena beraz. Elkarrekin elkarlanean dihardute bertan, ordezkaritza entitate bakoitzak duelarik. Hemen *Konfederazioak* ere aipa ditzakegu, hainbat federazioren batura delarik.
- *Mutualitatea* Gizarte Segurantzaren osagarria den zerbitzua ematen duen entitate aseguratzailea da. Pertsonak eratutako elkartea da, kudeaketa demokratikoak duena, eta izaera boluntarioko aseguru jardueran dihardu, Gizarte Segurantzaren publikoaren aurreikuspen sistema osatzen.
- *Gobernu Kanpoko Erakunde* bat berriz (ONG gazteleraz), elkarte, fundazio edo kooperatiba izan daiteke. Bere berezitasun nagusia gizarte ekintza jakin bat duela da, kolektibo behartsuenen alde jardutea, lurralde berean edo atzerrian.

Bertze hainbat kontzeptu edo entitate ikusi daitezke ere (elkarte kulturalak, gizarte ekonomiakoak...) elkarte, fundazio edo kooperatiben barruan dauden azpitaldeak direnak, bakoitzaren ezaugarrien arabera (Garcia, 2018).

Irabazi Asmorik Gabeko Entitateak beraz Hirugarren Sektoreko partaide garrantzitsuak dira, gizartearen onura dutenak xede nagusi, eta erran beharrik ez dago Garapen Jasangarriaren Helburuen betetzean zer erran handia izan dezaketela. Hortaz hauen arteko lotura, hots, Garapen Jasangarriaren Helburuen aplikazioa Irabazi Asmorik Gabeko Entitate batean nola eman daitekeen aztertu beharra dago.

5. ATAL ENPIRIKOA

Hau horrela, orain **NAFARROAKO BERTSOZALE ELKARTEA** aztertuko da eta Garapen Jasangarrirako Helburuak bertan nola txertatuak dauden ikusiko da, ondorioak atera eta hobetzeko zer dagoen adieraziz. Horretarako lehenik eta behin, elkartearen zer den, zertan diharduen, bere historia, baloreak, baliabideak... ikusi beharko dira.

5.1. GARAPEN JASANGARRIRAKO HELBURUAK IRABAZI ASMORIK GABEKO ENTITATEETAN

Hortaz, behin honat iritsita, alde batetik Garapen Jasangarrirako Helburuen inguruan oinarri bat lortu dela erran daiteke, nahiz eta luze eta sakon jardun daitekeen oraindik ere horrelako gai potolo batean eta bertze aldetik, Ekonomia Soziala eta zehatzago Irabazi Asmorik Gabeko Entitate bat zer den aztertu da, hainbat ezaugarri eta eztabaida ikasita. Orain biak nola uztartu daitezkeen ikusteko garaia da, hots, Irabazi Asmorik Gabeko Entitate batean Garapen Jasangarrirako Helburuak nola aplikatu daitezkeen aztertu, ikertu eta ikasiko da.

Irabazi Asmorik Gabeko Entitateek aipatu bezala asko daukate errateko GJHen betetzean, gizartearen ongizatean dutelako oinarria, bakoitzak bere esparruan, eta honek nahi eta nahi ez, helbururen baten betetzean laguntzen du. Gosea borrokatzea helburu duten GKEek 2.helburua lantzen dute, Greenpeace bezalakoek 7. Edo 13.a bertzeak bertze... azken batean beraz, Hirugarren Sektorea osatzen duten enpresek GJHei asko ematen diete, beren oinarria gizarteari onura bat ekartzea den neurrian. Hala baina, IAGE batek GJHein bat egiteko, hauek

barneratu eta ahal den neurrian helburu bat baino gehiagora lotu behar du bere jardueran, eta hori egiteko ze bide dauden aztertuko da.

GJH enpresara aplikatu ahal izateko hainbat baliabide daude erakunde ezberdinek errazten dituztenak. Nazio Batuen Itun Orokorrak adibidez, hainbat baliabide, datu, gida... eskaintzen ditu. Hala nola, SDG Compass gida, GJHen komunikazio materiala, Mundua salbatzeko alferren gida... denak ere helburuak lortzearren laguntzeko. Estatu mailan berriz, Sektore pribatua GJHen aurrean - Ekintzarako gida praktikoa, Itun orokorraren sare Espainiarraren Toolbox-a... eta Irabazi Asmorik Gabeko Entitateentzat bereziki, GKEen plataformaren ekintza sozialaren baliabideak (Red Española PMNU, 2019).

Erabiliena baina, SDG Compass tresna edo baliabidea da. SDG Compass Nazio Batuen Itun Orokorrak, GRI-k (Global Reporting Initiative) eta WBCSD-k (World Business Council for Sustainable Development) garatutako tresna bat da, enpresei euren lehentasuneko Garapen Jasangarrirako Helburuak identifikatzen laguntzen diena, bakoitzaren negozio-nukleoaren arabera. Tresna honek eskaintzen duen gida enpresei GJHak txertatu eta barneratzeko bidea ahalbidetu edo errazteko lehen erraminta da, bost pausuren bitartez baliatzen dena. Edozein entitateetarako balio du, tamaina, sektorea, fakturazio bolumena... dena delakoa izanik (Iracheta, d.g.).

Ondorengo bost pausuak dira gidaren ardatza: GJH ulertu, lehentasunak zehaztu, helburuak ezarri, helburuak barneratu eta informatu eta komunikatu (GRI-UNGC-WBCSD, 2019).

1. Garapen Jasangarrirako Helburuak ulertu.

Lehen pausu bezala entitateek GJH ezagutu behar dituzte, hauetara ohitu. Zer diren, nola sortu ziren, zergatik... GJHen oinarri bat edukitzea da kontua. Hauen oinarritzko ezagutza bat gabe ezinezkoa da konpromisoa hartzea helburuen betetzean. Konpromiso hori hartzea entitatearen zuzendaria edo kargu altuenaren gain izatea aholkatzen da, eta web orrialdean, sare sozialetan edo memorian argitaratzea berteak bertze, elkarteko kideak zein ingurukoak kontzientziaztearren.

Lehen pausu honetan gainera entitatearen komunikazio-funtzioa sartzan da, IAGE eta Hirugarren Sektorekoek orokorrean gizartearekin duten lotura zuzenagatik. GJHen mezua zabaltzeko kanal egokia dira, eta horregatik hainbat ekintza egoki ere proposatzen ditu gidak sentsibilizazio kanpaina gisako bat osatuz, beti ere entitatearen jardueran txertatzeko. Hala nola, 2030 agendaren mezua proiektu ezberdinak aurkeztean barneratu zein GJHekin lotzen den zehaztuz, Nazio Batuek izendatutako

egun internazionalak erabili ekintza ezberdinetarako (pobreziaren desagertze eguna adibidez), GJHen grafikoak erabili komunikazio ezberdinetan...

2. Lehentasunak zehaztu

GJH elkar lotuta dauden arren, entitate batek ez ditu 17ak berdin landuko. Bere jardueraren arabera hauetako batzuetan eragin handiagoa izanen du, eta bertze batzuetan ez du askorik landuko. Adibidez, gosearen aurka egiten duen entitate batek

2. GJH landuko du, baina era berean 13.a kaltetu dezake gasolinazko ibilgailuekin harat eta honat jardunez gero beti.

Hau dela eta entitateek beren indarguneak eta ahuleziak identifikatu behar dituzte GJHekiko, beti ere hauen lanketa hobetzarren. Horretarako adierazle ezberdinak erabili beharko dira, gidak berak ere eskuragarri dituenak behar izanez gero.

3. Helburuak ezarri

Helburuak ezartzeak entitatearen lehentasunak zein diren hobekiago zehazten eta aldi berean GJHen konpromisoa bultzatzen laguntzen du. Horretarako helburu zehatz, neurgarri eta denbora muga bat dutenak ezartzen saiatu beharra da entitatea, eta behin hori eginda publiko egin. Horrela GJHen aldeko posizio sendoa erakusten da eta aliantza ezberdinak egiteko bidea erraztu administrazio publikoa edo enpresa pribatu ezberdinekin, entitatearen strategiari balio erantsi bat gehitzen zaiolarik.

Helburu zehatzagoak jartzea horrelako adibideen bidez lortzen da: pobreziaren desagertzea bultzatzeko x ekintza egin, 2022rako entitatearen eraikinetan energiaren %50a berriztagarria izatea...

4. Helburuak barneratu

Hitz gutxitan erranda, pausu honetan helburuak modu transbertsal batean barneratzea eskatzen da, hots, helburuen lorpena entitateak egin ditzakeen ekintza ezberdinetara mugatu beharrean, egunerokoan lantzea. Hala nola, bizimodu osasungarriko programak eduki langileentzat, egoera zailean dauden pertsonen kontratazioa... Hau da, entitatearen kudeaketan eta eguneroko jarduneko erabaki eta ohituretan ere GJHen izaera sartzea, hauek ongi barneratuz.

Helburuak horrela integratuta aliantzen afera ere kudeatu beharra dago, eta GJHek bide hau errazten dute lehentasunen eta ekintzen zentzu bateratu bat adierazten dutelako, garapen jasagarri baten dimentsio guztietan. Aliantzak aipatzen dira berriz beraz,

garrantzia emanaz Hirugarren Sektoreko eta enpresa pribatuen arteko aliantzei, batzuen baloreen ezagutza eta bertzeek gehitu dezaketen laguntza kudeaketari, finantzei edo dena delakoari lotuz helburuak errazago lortzen direlako.

5. Informatu eta komunikatu

Azkenik, aurreko pausuek balioa izateko, 2030 Agendaren betetzean izandako garapena modu jarrai batean komunikatu beharra dago. GJHeK beren adierazleekin hizkuntza amankomun batekin entitate, gobernu... eragile ezberdinak alderatzeko aukera ematen dute hauek betetzeagatik egiten ari dena eta lortu dutena ikusteko. SDG Compass-ek komunikatu beharreko puntu batzuk aholkatzen ditu entitatearen konpromiso zehatza, helburuak aukeratzeko lehentasunen arrazoiak eta ezarritako helburuak eta hauen lorpena, bertzeak bertze (GRI-UNGC-WBCSD, 2019).

Hirugarren Sektorea beraz, agente garrantzitsua da gizartea sentibilizatu eta GJH ezagutzera emateko, eta hortaz dauka horrelako garrantzia 2030 Agendari egiten zaion ekarpena argitara eraman eta informatzeak, ez baita entitatearen onurarako bakarrik, baizik eta gizartea orokorrean informatu, sentibilizatu eta bide berean jartzeko helburuen lorpenerako.

Hortaz baliabide ezberdinak daude norbanakoen eta entitateen eskura GJHak barneratu eta lantzeko, egunerokotasunean sartuz. SDG Compass tresna baliagarria da gida orokor bezala, eta beraz kontutan hartuko da aplikazioan.

Hortaz gain, enpresa edo entitatearen analisi sakon bat egin beharra dago GJH zenbateraino lantzen diren ikusi, zertan ari den ongi eta gabeziak zein diren ikusiz eta hobetzeko bideak eraikitzeke asmoarekin. Horretarako AMIA analisi bat egitea egokia izan daiteke, aukera, mehatxu, indargune eta ahulguneak identifikatu eta uztartuz, gogoeta estrategikoa landu eta garatu daiteke eta helbururen betetze-maila hobetzeko.

AMIA (Aukerak, Mehatxuak, Indarguneak eta Ahuleziak) analisiaren bidez entitatearen ingurune orokorraren eta ingurune bereziaren zein etorkizunerako garrantzitsuak diren barne elementuei buruzko informazio garrantzitsua lortuko da, eta era berean, GJHen aplikaziorako egoeraren analisia egiteko baliatu daiteke. Kanpo eta barne-analisiak uztartzen ditu, jarraian hobekiago azalduko direnak (Mitxeo, 2016).

Kanpo-analisan entitatearen aukera eta mehatxuak zein diren aztertzen da. Aukera bat enpresarentzat bilakaera positiboa izan dezaketen ingurune faktore oro da, hau da, kanpotik lortutako faktore positiboa. Adibidez, bezero talde berrien agerpena edo garapen teknologikoa

aukerak izango lirateke. Bertze aldetik, ingurunearen analitik lortutako faktore negatiboak izan daitezkeenak mehatxutzat hartuko dira. Mehatxu izango lirateke, hala nola, norgehiagoka handia izatea edo herrialdeko krisi ekonomikoa.

Hala ere erran beharra dago enpresa batentzat aukera dena ez dela zertan bertze batena izan behar, noski. Aukera eta mehatxu gehiegi izan ez daitezen hauek sinplifikatzea komeni da, zerrendak eginez garrantziaren arabera, ondoren barne-analisiko faktoreekin gurutzatuko baitira.

Barne-analisiari dagokionez, barneko indargune eta ahuleziak ikertzen dira hemen, entitatearen barruko faktoreak alegia. Horrela, analisi funtzionala (era intuitibo eta zuzenean identifikatuz) edo baliabide eta gaitasunen analisi baten bidez (dauden eta falta diren baliabide eta gaitasunak identifikatuz) etorkizunerako garrantzitsuak diren barne elementuei buruzko informazioa lortuko da.

Indargune edo puntu sendoak eta ahulezia edo puntu ahulen zerrenda ere sinplifikatzen saiatu behar da, garrantziaren arabera ordenatuz, kanpo-analisiko faktoreekin lotzeko gero..

Horrela, behin zerrenda egokiak edukita, analisi estrategikoaren puntu garrantzitsuena da falta dena. Kanpoko eta barneko faktoreen gurutzaketak egiten dira, lau gurutzaketa posible daudelarik:

1- Aukerak(+)/ indarguneak(+)

Enpresaren indarguneen bidez aukerak aprobetxatzerik dagoen aztertzen da horrela. Hemen lortutako ideiak, bertzeak bertze, hazkundearekin, merkatu berriekin, errentagarritasunarekin edo produktu berriekin zer ikusia izaten dute. Gurutzaketa honetako ideiei “Akzio edo eraso ardatzak” deituko zaie.

2- Aukerak(+)/ Ahuleziak(-)

Bertan dauden ahuleziengatik aukera batzuetaz baliatzea zaila edo ezinezkoa dela ikusiko da gurutzaketa honen bidez. Hemengo ideiak entitatearen ahuleziak gainditzeko edo murrizteko izango dira, inguruneko aukerak aprobetxatzeko gaitasuna lortzeko helburuarekin. Ideia hauei “Erreakzio ardatzak” deituko zaie.

3- Mehatxuak(-)/ Indarguneak(-)

Entitateak indarguneen bidez mehatxuei aurre egiteko gai den ikusteko balio du gurutzaketa honek. Bertan sortzen diren ideiak merkatu kuota mantendu edo produktu

eta lehiakide berrien aurka lehiatzearen gisakoak izaten dira. “Babes ardatzak” bezala ezagutzen dira.

4- Mehatxuak(-) / Ahuleziak(-)

Dauden ahulezien ondorioz mehatxuek zenbaterainoko kaltea egingo duten aztertzen da. Agertoki okerrena da enpresaren biziraupenerako. Bertan sortzen diren ideiak entitatearen barne-ahuleziak moldatzera bideratuak egoten dira, “Arrisku Ardatzak” deitzen zaielarik.

4 taula - AMIA analisis teorikoki

AMIA	AUKERAK 1.auk. 2.auk. ...	MEHATXUAK 1.meha. 2.meha. ...
INDARGUNEAK 1.ind. 2.ind. ...	1.GURUTZAKETA Akzio ardatzak	3.GURUTZAKETA Babes ardatzak
AHULEZIAK 1.ahul. 2.ahul. ...	2.GURUTZAKETA Erreakzio ardatzak	4.GURUTZAKETA Arrisku ardatzak

Iturria: Mitxeo (2016).

Ondorioz, gurutzaketa bakoitzeko ideiak etorkizunean formulatu daitezkeen helburu eta estrategien oinarri izan daitezke. Kanpo eta barne-faktore hauen gurutzaketak hausnarketa eta eztabaida prozesu ireki bat eskatu ohi du, bertatik ideiak ateraz *brainstorming* moduko bat eginez, eta ideien matrize batekin bukatuz enpresaren helburu eta estrategietan bilakatu daitezkeen ideiak aztertu ahal izateko.

Lan honetan beraz, AMIA analisisa erabiliko da Irabazi Asmorik Gabeko Entitate Batean, Garapen Jasangarriaren Helburuen ikuspegia barneratuz analisisan bertan.

5.2. NAFARROAKO BERTSOZALE ELKARTEA

Lehenik eta behin Nafarroako Bertsozale Elkartea, Bertsozale Elkartearen zati dela zehaztu beharra dago, eta beraz, Bertsozale Elkartearen analisia egingo da beti ere Nafarroako elkartera zehatzago bideratuz ahal den heinean. Hala ere hainbat kontzeptu ikertzean Bertsozale Elkartea osoa izango da aztergai, Nafarroakori ere eragiten diolarik.

Bertsozale Elkartek (2018) bere gogoeta estrategikoan adierazten duenez, “bertsolaritza zaindu, sustatu eta ikertzea da bere egitekoa, haren transmisioa eta etorkizuna bermatzea. Horretarako, bertsolaritzaz arduratzen diren bestelako eragile guztien bilgune izatea du xede, eta kontuan hartuko du zein diren tokian tokiko hizkuntza eta gizarte egoerak eta premiak”.

Irabazi Asmorik Gabeko Erakunde bat da, aurretik aipatu den bezala beraz Hirugarren Sektoreko partaide, gizartearen egoera eta premiak kontuan hartzen dituelarik. Hizkuntzari balio handia ematen dio jarduten duen eremua dela medio, eta aipatu bezala, bertsolaritzaz arduratzen diren bertze eragile batzuekin batera bertsolaritza zaindu, sustatu, ikertu eta haren transmisioa eta etorkizuna bermatzea dira entitatearen helburu nagusiak.

Bere historian murgilduz, web gune ofizialean adierazten denez (Bertsozale Elkartea, d.g.) elkartea bertsolariak sortu zuten 1987an, 1985eko Euskal Herriko txapelketa antolatzeke garaian Euskaltzaindiarekin desadostasunak izan eta bertsolariak beren kontura txapelketa antolatu ondotik. Bertsolaritza geroratzeko sortutako gizarte mugimendua da, hasiera batean Euskal Herriko Bertsolari Elkartea eta 1995ean Bertsozale Elkartea izatera pasatu zena.

Horrela 1987tik elkartea garatzen joan da, kudeaketa, lantalde, komunikazio eta abarri dagokionez. Hala nola, lehenengo urtean langile kontratatu bakarra zen bezala orain pertsona askori ematen zaio lanpostu bat, lurralde bakoitzeko elkartea eta zuzendaritza organoak jarri ziren abian, telebista programak eta aldizkari ezberdinak sortu ziren... Hau da, elkartea garatzen joan da urte hauetan uneko beharrei erantzunez momentu hobe eta okerragoetan, gaur egun urteen poderioz heldutasun eta esperientzia baliagarriak lortu arte.

Funtzionamenduari dagokionez, elkartearen hitzetan “Gizarte mugimendu gisa, bere baitan ardaztuta eta autonomiaz funtzionatzen du. Elkartearen balioetako bat gizarte, administrazio eta enpresa erakundeekin lankidetzan aritzea da, beren kultur proposamenen garapenean parte hartuz eta ekarpenak eginez.” Hau da, IAGE den heinean, irabaziak elkartera bideratzen dira bertan berrinbertitu eta bere helburua lortzen jarraitzeko. Gainera mota honetako enpresen beharrei erantzunez, lankidetzari garrantzi handia ematen zaio

administrazio eta enpresekin lotura mantenduz, diru-laguntzak, azpiegiturak... lortzeko bertzeak bertze.

Elkartearen jarduera esparrua kulturgintza eta euskalgintza dira gehienbat, bertsolaritza gure hizkuntzaren ondare garrantzitsua delarik. Hezkuntza ere lantzen du elkarteak bertso eskolen sorrera eta dinamika bultzatuz, hezkuntza arautuan bertsolaritza irakasgaia eskainiz eta aisialdirako jarduerak antolatuz. Esparru hauen lanketak beraz onura bat dakarkio euskal gizaritari eta kulturari, elkartearen jardunari balorea emanaz, onura publikoa bilatzen baitu. Garapen Jasangarriko Helburuetan ez da kultura eta hizkuntzaren punturik azaltzen, baina aurrerago gehiago sakonduko da.

Bertzetik, gaineratu beharra da euskararen lurraldea dela Bertsozale Elkartearen lan esparrua. Bi maila bereizi behar dira: kulturala eta geografikoa. Kultur esparruan bertsolaritzara mugatu da ia osoki, baina ahozotasunaren alorrean ere beste zenbait ekarpen egin dira. Geografikoki, Euskal Herri osora hedatutako proiektua da Bertsozale Elkartearena, baina nazioarteko ekimenak ere sustatu ditu. Euskal Herriko herrialdeetan bakoitzak bere elkarte du, tartean Nafarroako Bertsozale Elkarte, Iruñean duena egoitza nagusia.

Nafarroako Bertsozale Elkartearen berezitasuna lurraldea beraren ezaugarrietan dago. Egoera linguistikoa, kulturala, lurraldeko ohiturak... azken batean egora soziokulturalak garrantzi handia du elkarte honen baitan. Nafarroaren kasuan, hizkuntza geografikoki banatuta dago eremu euskaldun, misto eta ez-euskaldunaren bidez. Euskararen arnagunea eremu euskaldunean dago, herri txikiz osatuta dagoena, eta Iruñea hiriburua eremua mistoan kokatzen da, euskara hizkuntza koofiziala delarik ere bertan. Eremu ez-euskalduna berriz, hegoaldean kokatzen da, euskarak ez duelarik bertako hizkuntza denaren aitortzarik ofizialki. Borroka politiko bat da euskararena Nafarroan, gobernuaren arabera egoera hobetu edo gehiago zailtzen zaiona.

Bertzetik, demografiari dagokionez Nafarroan Iruñea da biztanle kopuru handiena duena diferentzia handiarekin, eta Tuteran eta Barañain dira 20.000 biztanletik gora dituzten herri bakarrak. Beraz herri txikiez osatuta dago oro har, hauen mugikortasun, azpiegituren... ezaugarriekin. Gainontzeko euskal lurraldeekin alderatuz Nafarroak azalera handiagoa du, denetan handiena izanik, hemen ere mugikortasunaren ezaugarri ezberdinak plazaratuz.

5.3. NAFARROAKO BERTSOZALE ELKARTEAREN DIAGNOSTIKOA

Bertsozale Elkartearen inguruan zer den eta zertan diharduen ikusita beraz, Nafarroako Bertsozale Elkartearen analisi bat egingo da Garapen Jasangarriaren Helburuen ikuspegitik, hauek nola aplikatzen diren edo aplikatu daitezkeen ikertu eta ondorioak ateratzeko.

Horretarako AMIA analisia egiteko garaian elkarteko zuzendaritzan hogeit hamar urtetik gora jardunean dagoen Arozena-Albizurekin lan egin da, elkartearen memoria, egitasmo eta gogoeta estrategikoa aztertuz batera. AMIA taula eratu da, ondotik bertako puntuak sakonago azalduaz.

Bat banaka, indargune, ahulezia, aukera eta mehatxu izan daitezkeen faktoreak arakatu dira analisia osatzeko. Faktore ezberdinak atera dira kontzeptu bakoitzaren baitan, baten bat Garapen Jasangarriko Helburuen baitan ez dagoena, baina analisia helburuen ikuspegitik egitea izan da xedea, hauen aplikazioa baita aztergaia. Hasteko barne-faktoreak direnak, hots, indargune eta ahuleziak aztertu dira ondoren kanpo faktoreak identifikatu eta hauekin uztartzeko.

5 taula – Nafarroako Bertsozale Elkartearen AMIA analisia

	AUKERAK	MEHATXUAK
AMIA	<ul style="list-style-type: none"> -Aliantzak* -Garapen teknologikoa -Bezero talde berriak -Euskal kultura eragileekin sinergiak -Banakuntza-kanal berriak -GJH txertatzeko baliabideak 	<ul style="list-style-type: none"> -Kulturaren garrantzia GJHetan* -Mugikortasuna* -Egungo krisia -Egoera sozio politikoa -Bezeroen behar eta gustuen aldaketa -Lehiakide berriak
INDARGUNEAK	Akzio ardatzak	Babeserako ardatzak
<ul style="list-style-type: none"> -Feminismoa* -Kontsumo arduratsua* -Kalitatezko hezkuntza* -Lan duina* -Desberdintasunak murriztea* -GJH txertatzeko prestutasuna* -Bizirauteko grina -Estrategia argia -Irudi ona -Giza baliabide kualifikatu eta motibatuek 	<ul style="list-style-type: none"> -Jadanik dauden hitzarmenekin jarraitu eta hauei indarra eman aliantzak indartuz, hala nola, Emakunderekin. -Jorratzen ez diren helburuak lantzen hasi, gosetearen aurka bertso-saioekin adibidez. 	<ul style="list-style-type: none"> -Nagusiki lantzen diren helburuen lanketan zentratu, lehentasunen arabera. -Osasun krisiaren egoera dela eta distantziara lan egitearen alde onak aprobetxatu, GJHen beri emateko.

AHULEZIAK	Erreakzio ardatzak	Arrisku ardatzak
-Kutsadura* -GJH ezjakintasuna* -Baliabide ekonomikoak lortzeko menpekotasuna -Hezkuntza proiektuaren dimentsioak	- Diru-laguntzen menpekotasunak eta krisiak sor ditzakeen zalantzen aurrean, helburuak barneratzeko kostu nulua baliatu, dagoen prestutasuna ikusiz erraza izan daitekeena. -GJHen ezjakintasunari aurre egiteko SDGCompass gida oinarri hartu prozesua martxan jarriaz.	-GJHetan kulturaren garrantzi eza eta helburuekiko ezjakintasunari sentsibilizazio kanpaina baten bidez aurre egin. -Mugikortasunaren arazoari aurre egiteko aukerarik badagoen hausnartzeko lanketa egin, 11.helburuaren hobetzea eskatzeko aukera baloratuaz.

*Garapen Jasangarriaren Helburuekin lotura zuzena.

Indarguneei dagokienez, genero berdintasunaren inguruko 5.helburuari ekarpen irmoa egiten zaiola ikusi da. Feminismoa, administrazioa edo lehendakaritza diren bezala, bertze sail bat da entitatearen barruan, hau da, kudeaketa orokorreko bertze partaide bat da. Gogoeta estrategikoan adierazten denez, "Bertsozale Elkarreak eredu izan behar du bertsolaritzaren mugimenduarekiko berdintasun politiketan, eta bertsolaritza bere osotasunean parekide izan dadin eragiteko ardura du" (Bertsozale Elkarrea, 2018. 7.orr.). Gainera, 2019ko memorian agertzen denez, gizon bertsolarien bertso-eskola feminista sortzea zen helburua praktikan bete da, 2018ko gogoetak feminismoan planteatutako ondorioak bildu diren bitartean, sail bakoitzari dagozkionak jakinaraziz. Bertze ekimen mordo bat ere burutu dira, hala nola, datozen 12 urteetako lan ildoak idatzi, eraso matxistak kudeatzeko protokoloa adostu edo berdintasun plana elkartean nola egingo den zehaztu (Bertsozale Elkarrea, 2019). 2020ko egitasmoak dioenez berriz, Emakunderekin dagoen hitzarmenari iraunkortasuna eman nahi zaio, berdintasunaren aldeko postura irmoa indartuz (Bertsozale Elkarrea, 2020).

Gai honen baitan Arozena-Albizuk gaineratu duenez, urte batzuk atzera egin bertzerik ez da behar emakumeak bertso munduan hartu duen indarra ikusteko. 80ko hamarkadan ia emakume bertsolaririk ez egotetik lurralde zein Euskal Herri mailan txapeldun izatera heldu dira, emakume bertsolarien kopurua asko haziz. Hau dena hein handi batean elkarreak egindako lanketatik datorrela erran daiteke.

Hala ere, badira genero berdintasunean zenbait gabezia oraindik ere bertsolaritza munduan. Emakundek berdintasunaren ikerketarengatik saritua duen lan batean aipatzen denez, (Esteban et al., (2005)) emakumeen parte-hartzea oraindik ere sinbolikoa da. Bertso eskoletan hasi, asko hasten direla diote bertan, neskak mutilak baino gehiago direlarik kasu askotan. Hala baina, bertsolaritzan jarduteko bidea emakumeek asko errazago uzten dutela

aipatzen da, arrazoi zehatzik ez dagoelarik. Autoestimua, bertsolaritzak duen tradizio atzerakoia, emakumeek duten presio gaineratua... izan daitezkeela aipatzen da, oraindik ere bertsolaritza arau maskulinoak dituen gai bat dela gaineratuz. Pertsona zaharrek bereziki oraindik ere aurreiritziak dituztela ondorioztatzen da, eta euskal gizartean gazteen artean soilik hartzen dela benetan normaltzat emakumeen parte hartzea bertsolaritzan. Bertsozale Elkartek beraz badu oraindik ere bertsolari zein ikusleekin lan egiteko beharra, genero berdintasunaren alde.

Honez gain Nafarroako Bertsozale Elkartek ekoizpen eta kontsumo arduratsuen alde egiten du, 12.helburuak jorratzen dituenak. Bertsolari Lesakarrak aipatu du edozein sariketa edo ekimen egiten denean, hala nola zozketaren bat, sari guztiak bertako produktuak izaten direla. Nafarroako ardotik hasi eta bertako artisauek egindako artelanetara, sariak bertan ekoizitakoak izaten dira bertako kontsumoa bultzatuaz. Elkartearen logotipoa bera ere Oteiza eskultoreak egindako obra da. Gainera bitxikeria gisa baina aipatzeko modukoa, Iruñean bertan bizi diren langile guztiak Landare produktu ekologikoen kontsumitzaileen elkartean bazkide dira, elkartearen kontsumo ardurarekin bat eginez.

Kontutan hartzeko bertze puntu sendo bat 4.helburuarekin lotzen da, kalitatezko hezkuntza bermatzearekin. Elkartea esparru honen barruan jardunean dabil, ikastetxeetan zein eskolaz kanpo bertsolaritza irakasten. Haur zein heldu sartzen du hezkuntza-planak bere baitan, egunerokotasunean klaseak emanez bai eta urtean zehar udalekuak, eskolarteko txapelketak... antolatuz. Irakasleen formazioari garrantzia ematen zaio hezkuntzan profesional kualifikatuak bermatzeko, eta Arozena-Albizuk adierazi duenez, ahozkotasuna lantzen trebatuak dira. Hezkuntza barruan ahozkotasunaren gabeziak ikusi zituztela dio, haurrek ongi hitz egiten ikasteko beharra dutela. Horrela, bertsolaritzaren bidez ahozkotasuna lantzeko egon daitezkeen gabezia horiek lantzen dituzte ariketa ezberdinen bitartez, elkartek eta bertako langileek sortuak.

8.helburuak aipatzen dituen lan duina eta ekonomiaren hazkundeari dagokionez, Arozena-Albizuren erranetan “elkarteko langileak baldintza hagitza onetan lan egiten dute, hauen ongizatea eta lanean gustura egotea asko baloratzen baita”. Sanjurjo-Alzuri bertsolari eta Bertsozale Elkarteko langilearen hitzek berretsi egiten dute aipatutakoa. Bere iritziz “pribilegiatu batzuk gara Nafarroako Bertsozale Elkartean lan egin dezakegunak, gustuko lana izateaz gain ordutegi malguak eta lan giro bikaina baitugu”. Horrela, elkartek giza baliabide kualifikatu eta motibatuak lortzen ditu gainera, puntu sendo bat direnak. Erran beharra dago elkartea hasieran aipatu bezala langile bakarrarekin hasi zela Euskal Herri mailan, eta gaur egun lantalde handi batek diharduela soldatapean.

Bertzalde, 10.helburuarekin lotura duen ekintzak ere jorratzen dira elkartean. Desberdintasunak murrizte aldera, Elkartasun Kutxa bat sortu zen baliabide ekonomikoak gordetzeko bertan. Horrela Euskal Herriko lurralde ezberdinek duten egoera ezberdinek sortu ditzaketen zailtasunak murriztu daitezke. Nafarroa, Ipar Euskal Herria eta EA Eren artean egoera politiko eta sozialak berdinak ez direnez, eta erakundeak ere ezberdinak direnez, laguntza bat behar duenari emateko sortua izan zen Elkartasun Kutxa hau.

Garapen Jasangarrirako Helburuen baitan ere, Arozena-Albizu eta Sanjurjo-Alzuriaren aldetik elkarteak prestutasuna izango lukeela adierazi dute hauen aplikaziorako, helburuen baloreekin bat egiten baitute beraien hitzetan elkarte eta bertako partaideek.

Hortaz gain, elkarteak bertze hainbat indargune ditu Garapen Jasangarriaren Helburuekin ez dutenak lotura berezirik. Hala nola, elkarteak estrategia argi bat duela erran daiteke, bertako langile bakoitzak bere helburua eta elkartearena zein diren eta nola jorratu behar diren dakielarik. Hortik bertze puntu sendo bat atera daiteke, giza-baliabide kualifikatu eta motibatuak izatearena, lan baldintza onak eta amankomunean duten helburuagatik. Kontsumitzaileen artean duen irudi ona ere aipatzekoa da, euskal kultura eta ohituretan errotuta baitago bertsolaritza.

Arozena-Albizuk azkenik indargune garrantzitsu bezala ikusten du Bertsozale Elkarteak duen bizirauteko indar eta grina. XXI.mende honetan dauden ohitura eta bizi erritmo biziak bertsolaritzak bizirautea zailtzen dutela dio zuzendaritzako kideak, baina bertsolaritza maite duten eta lanerako grina duten jendearen lanaren bidez, desagertzeko zorian egon ordez indartsu dagoela aipatu du, zailtasunei aurre eginaz.

Elkartearen barneko puntu ahulak ateratzeko orduan berriz, klima aldaketaren edo energia ez kutsatzailea erabiltzearen inguruan, langileak norbere ibilgailuan ibiltzen direla erran behar da. Aurretik aipatutako Nafarroako ezaugarrien barruan, herri txikiak nagusi direla adierazi da, hauen mugikortasun arazoekin. Bertsozale Elkarteko langile gehienak irakasleak izanik, ikastetxeetara iristeko kotxearen erabilera derrigorra dute, garraio publikoaren faltan. Gainera irakasle bakoitzak ikastetxe ezberdinetan emanik klasea, zail izaten dute ibilgailua elkarbanatzea ere. 11. Helburuaren gabezia baten aurrean gaudela erran daiteke, bere helmugetako bat garraio publiko jasangarri bat ahalik eta pertsona gehienetara heltzea baita.

Izan dezakeen bertze ahulezia bat baliabide ekonomikoak lortzeko menpekotasuna da. Diru-laguntzen bidez finantziatzen denez, publikoak gehien bat, iturri horien menpe biziraun beharra du, krisi garaietan ezegonkortasuna sor lezakeena.

Honekin lotuta, elkartearen dimentsioa (langile kopurua, azpiegiturak...) mantentzea egongo litzateke. Gaur egungo hezkuntza proiektua sostengatzeko beharrezko baliabide ekonomiko eta finantzarioak lortzea urteroko lan gogorra da, ezegonkortasun puntu batekin bizitzen dena, ahulezia batean bilakatzen dena.

Garapen Jasangarriaren Helburuekiko erlaziora itzuliaz, hauen inguruko ezjakintasuna aipatu beharra dago ahulezia gisa. Arozena-Albizu eta Sanjurjo-Alzurik ez zuten bere hurbilean helburu hauen inguruko informaziorik, eta helburuen ezagutza ere eskasa zuten orain arte. Helburuen oinarritzko ezagutza bat gabe zail egiten da hauen aplikazioa eta lanketa, eta beraz, ahulezia bezala hartzen da lan honen ikuspuntutik.

Kanpoko faktoreen azterketa egiterakoan aukera eta mehatxu ezberdinak identifikatu dira. Aukera potentzialei dagokienez, 17. helburua, helburuak lortzeko aliantzena dago. Diru-laguntzak lortzeko Bertsozale Elkarteak beharrezkoa du entitate publikoen laguntza, lankidetzak akordioak ere sinatuaz. Horrela, zenbait helbururen lanketan diharduten entitateekin ere akordioak egitea posible da, Emakunderekin hala nola, berdintasunaren alde. 2019ko memorian agertzen denez, berdintasunaren alde jarduten duen entitate honekin dagoen hitzarmenari jarraipena eman zaio, 2020ean ere jarraitzeko aukera izan daitekeena.

Garapen Jasangarriaren Helburuek beren barneratzea lantzeko eskaintzen dituzten baliabideak aukera bezala hartzen dira ere, bidea errazten dutelarik. Gainera, elkarteak irudi ona izanik ere, helburuen txertatzeak irudia hobetu dezakeenaren aukera ikusi da. Horretarako bertsolari edo bertsozale gazteekin kontaktuan jarri da eta honen inguruan galdetu. Zapiain-Arlegi bertsolari gazteak adierazi duenez, "Bertsozale Elkarteak balore batzuekin erlazionatzen dugu bertso eskolan gauden gazteok, eta helburuek helarazten duten irudia balore horiekin bat datorrelarik, hauen barneratzea begi onekin ikusiko genuke".

Aukera berri bat ere garapen teknologikoaren baitan ematen da. Sare sozial eta antzekoen bidez gizarteko talde ezberdin berriengana iristeko aukera handia dago, bertsoaritzaren mundua ezagutzeko tresna moduan erabilita. Horrela banakuntza-kanal berriak baliatu daitezke, elkartearen eskaintza zabaltzeko.

Aurrekoarekin lotuta, bertsoaritzaren interesa talde ezberdinetara iritsiz gero, baliteke erabiltzaile talde berri potentzialak egotea, aukera interesgarria izan daitezkeenak.

Gainera, sinergiak lortu daitezkeela ondorioztatu da Arozena-Albizurekin aukerak aztertzean, euskalgintzaren barruan. Hala nola, euskaltegiekin lan egin daiteke, euskara ikasten ari denak bertsoa pizgarri izanez.

Mehatxuak identifikatzeko orduan ikusi denez, bertze hainbat elkarte eta enpresak bezala krisia izan dezake mehatxu potentzial bat. Are gehiago egungo krisi sanitarioa uzten ari den eta utzi ditzakeen ondorioekin. Diru-laguntzen menpekotasuna dela eta, herrialdea krisi batean egotea mehatxu bihurtzen da.

Bertzetik, Nafarroako egoera sozio politikoa kontutan hartuta hizkuntzaren afera dago. Euskararen indarra eta honen inguruko politikak garrantzi handia dute bertsolaritzaren bizirautean, erabaki batzuk larriak izan daitezkeelarik. Azken batean uneko gobernuak euskararen alde egiten duen apostuaren arabera jende gehiago edo gutxiagok izaten du baldintza egokietan euskaraz hazi eta hezitzeko aukera, Iruñetik hegoaldera begiratzen denean gehien bat. Euskarari oztopoak jartzen zaizkionean elkartearen dinamikak nabaritzen du, mehatxu bat izanik.

Nafarroaren ezaugarrien barruan ere, mugikortasunaren arazoa agertzen da zenbait gunetan. Langileak ibilgailu propioa hartzea bertzerik ez dute lehen aipatu bezala, eta hau lurraldeko herri txikiek duten mugikortasunaren mugen ondorio izan daiteke. Garraio publikoa eskasa da biztanle gutxiko herrietan, eta herri txiki askotara heltzen da elkartea era berean.

Arozena-Albizurekin aztertzen, Nafarroako Bertsolari Txapelketan bi aldiz txapeldun ateratakoak dio bertsolaritzaren irautearentzat gaur egungo kontsumo ohiturak, teknologia eta ikaskuntzari begirata gehien bat, ez direla onuragarriak. Lehen aukeratzat hartu diren are sozialak eta Youtube bezalako plataformak, gazterian bereziki eragin nabarmena dutenak, mehatxu bihurtu daitezke era berean. Gai eta kontzeptu ezberdinak denbora laburrean eta ahalik eta sintetizatuen ematen dira, bertsolaritza bezalako mundu batek eskatzen duen denbora eta lasaitasuna garestituz. Gaur egungo gizartean Internetera jo ohi da edozein ezjakintasun argitzeko modu azkar batetan eta bertsolaritzak ikasketa prozesu lasai eta kontzientziatu bat eskatzen du. Beraz, jokamolde edo ohitura berri hauek mehatxu bat izan daitezke elkartearentzat.

Hemendik lehiakide berrien mehatxua ere badagoela ondorioztatu daiteke, nahiz eta bertze elkarte edo enpresarik ez egonda ere bertsolaritzaren eta honen transmisioaren lanketan. Aipatutako Youtube bezalako plataformek bertso mundua era sintetizatu batetan emateko aukera dute, askotan tentagarria izan daitekeena. Hortaz, lehiakide berriak izan daitezkeenen sorrera gertatzen da, mehatxua dena elkartearentzat.

Azkenik, Garapen Jasangarriaren Helburuen aplikazioan elkarreak izan dezake mugaren bat. Azken finean, helburuak jorratzeko elkartearen jarduera zein den garrantzitsua da, bere lehentasunak zein diren ikusteko orduan. GJH ez dira kultura edo hizkuntza gutxituetan

barneratzen, behar bada gizartearen zati batentzat garrantzitsua izan daitekeen arazoa delarik hauen biziraupena. Hortaz, erran daiteke helburuen gabeziaren bat ere argitara ekartzen dela elkartearen jarduera esparrua eta bertatik egiten ahal duen ekarpena aztertzean, GJHeK kulturari eta hizkuntzei ematen dieten garrantzia mehatxua izan daitekeelarik elkartearantz, hauen aplikazio egokia egiteko.

Behin barne eta kanpo-faktoreak aztertuta, hauen gurutzaketa bidez ideia batzuk garatu dira GJHen aplikazioa bideratzeko. Garrantzitsua da beraz zein ikuspuntutik egin den jakitea, ohiko AMIA analisi bat enpresaren estrategia izango denaren oinarria lortzeko egiten den bezala, kasu honetan Garapen Jasangarrirako Helburuen aplikaziorako oinarria izateko helburuarekin egin baita, eta ez elkartearen estrategia orokor baterako.

Aukeren eta indarguneen uztartzea egin da lehenik, elkarreak izan ditzakeen aukera potentzial horiei zukua ateratzeko zenbateko indarra duen jakiteko, bere puntu sendoak erabiliaz. Horrela, hainbat ideia atera dira eraso edo akzio ardatzak izango direnak eratu. Garapen Jasangarrien Helburuen ikuspuntutik, Bertsozale Elkarreak 17. helburua lantzeko aukera duela ikusienez aliantzak lortzeko, hau lantzeko ideiak garatu dira. Bere irudi ona eta helburuen alde egiteko prestutasuna ikusirik, erakunde ezberdinekin lanketak egin dezake helburuen baitan. Aipatu bezala Emakunderekin duen elkarlana indartu eta bertsoa feminismoarekin lotzen jarraitzeko egoera egokia da. Gainera, bere esparruan lantzeko zailak diren helburuetara hurbildu daiteke elkarlanean, gosea murriztearen alde adibidez, bertso jaialdiak antolatuz janari bilketak egiten dituen entitate batekin, jaialdia helburu horrekin ospatuaz.

Era berean, kontzientziazio lanak ere egin ditzake genero berdintasuna, kontsumo jasangarria, kalitatezko hezkuntza edo lan duinarena bezalako helburuak ongi lantzen dituenek, hauen berri emanaz. Garapen teknologikoaren aukera aprobeztatu eta sare sozialen bidez jendeari bertsoaz gain gehien lantzen dituen helburuen berri eman dezake, Garapen Jasangarriaren Helburuak entzutera emanaz. Gainera, helburuen betetzeak ematen duen irudi onak bezero edo erabiltzaile berri zein ohikoetan alde positiboa izango luke.

Helburuak txertatzeko dauden baliabideak aukera ederra dira aprobeztatzeko. Hala nola, lan honetan aipatu den SDG Compass tresna erabili daitekeela ondorioztatu da, behin elkarreak bere estrategia ongi ezagutu eta langileak kualifikatu eta motibatuak dituenek, lanketa gehigarri bat izanik ere bere gain hartu dezake eta.

Aztertu diren aukeren eta elkartearen puntu ahulen arteko gurutzaketa egitean ere hainbat erreakzio ideia atera dira, ahuleziak murrizteko asmoarekin. Ahulezia nagusietako bat

diru-laguntzekiko dagoen menpekotasuna izanik, aliantza edo elkarlan berriak sortzeko edo GJHen lanketan hasteko oztopoa dela ikusi da. Hezkuntza proiektuaren dimentsioak mantendu ahal izateko baliabide ekonomikoak lortzeko menpekotasun horrek sortzen duen ziurgabetasunak, gaur egungo krisi egoera batean bereziki, edozein lan gehigarritan sartzeko zalantzak sor ditzake. Horren aurka, elkarre barruan helburuak barneratzeak hasiera batean behintzat kostu gehigarriak sortuko ez duela eta onurak ekar ditzakeela argi uztea garrantzitsua da, zalantzak alde batera uzteko.

Bertzetik, GJHen ezagutza eskasa dagoela ikusirik, honen lanketa egin beharko da lehenik. SDG Compass gida martxan jarritz gero, elkarteko partaideak helburuak zer diren ulertzea bideratu daitezke, horrela ezagutza eza konponduaz.

Ahuleziaz hartu da garapen jasagarri baten alde egiteko langileak bat banaka bere ibilgailuan mugitu behar izatea. Egia da garapen teknologikoak ematen dituen aukerekin arazo hau murriztu daitekeela, hala nola bertso eskola birtualak eskainiz. Baina Sanjurjo-Alzurik dioen bezala, “haurrekin ikastetxeetan gabiltzan irakasleak haurrekin kontaktuan ibili beharra dugu, baita orain bizi dugu osasun krisi honetan ere, bertsolaritzak partaideen arteko kontaktu zuzena eskatzen baitu”. Gainera, Sanjurjo-Alzuriren ustetan kalitatezko hezkuntza bat bermatzeko eta gainera bertsoarekin gehien lantzen diren kontzeptuetan lan egiteko, ahozotasuna bertzeak bertze, zuzeneko kontaktua behar da. Hortaz, herrialdeko mugikortasuna hobetu ezean puntu ahul hau murriztea zaila izango dela ikusi da, eta behar bada hemen 11. Helburua lantzerantz bultzatu daiteke bertako gobernuak.

Mehatxu eta indarguneen arteko gurutzaketan, puntu sendo ugari daudela ikusi da kanpoko mehatxuei aurre egiteko. Horrela, babeserako ardatzak izan daitezkeen ideiak sortu dira. 2030 Agendako helburuen ikuspegitik, kulturari ez zaio batere garrantzirik ematen. Bertsozale Elkartek kultura eta hizkuntzaren alde egiten du, bereziki euskara eta euskal kulturaren jardunez, baina hau ez da Garapen Jasagarriaren Helburuetan barneratzen. Hala baina, helburuen ikuspegi hori mehatxu hartu bada ere, berdintasuna, kalitatezko hezkuntza, kontsumoarekiko arduraren, desberdintasunen murrizketa eta lan duina ongi lantzen dituelarik, kultura arloan jardunda ere helburuak ongi bete ditzakeela ikusi da. Hortaz, ongi jorratzen dituen helburu horietan zentratzea ongi egongo litzateke, hauek baitira oraingoz helburuen betetze horretan sustengu handiena ematen diotenak.

Osasun krisia mehatxu argi bat da elkarrearen jarduna behar bezala egin ahal izateko, irakasleek behintzat kontaktu zuzena behar dutelako beren lana ongi betetzeko, Sanjurjo-Alzurik lehen aipatu bezala. Hala ere, distantzian lan egitera ohitzera behartzen ari delarik egoera

zenbait kasutan, honi probetxua atera liezaioke elkarteak. Distantzian lan egiteak sarean lan egitea dakar, bertan gero eta hobekiago moldatuta elkartearen jarduna zabaltzeko trebezia garatzen delarik ere, eta horrela Garapen Jasangarriaren Helburuen lanketa zabaltzeko bideak errazago ireki daitezke.

Azkenik, mehatxu eta ahuleziak nahasiaz arrisku ardatzak diren ideiak atera dira, ahulezien ondorioz mehatxuek zer kalte egiten duten ikusiaz batera. Aurretik aipatutako GJHek kultura barneratzen ez dutela eta sortzen den mehatxua, elkarteak GJHekiko dagoen ezjakintasunarekin okerrera joan daiteke. Jorratzen duten esparrua kontutan hartzen ez duten helburu batzuk txertatzea hasiera batean zaila izan daiteke ulertzeko. Hortaz, partaideen helburuekiko ezagutza lantzea ezinbestekoa dela ikusi da.

Bertzetik, lan honen ikuspuntutik Nafarroako mugikortasunaren mugak mehatxu bezala hartu dira elkartearentzat. Puntu ahula den langileen mugikortasunak gainera, mehatxu honen kaltea handitzeko bertzerik ez du balio. Hortaz, lehen aipatu den bezala arazo hau konpontzea zaila baldin bada ere, hausnarketa egiteko tartea hartzea ongi egonen litzatekeela ikusi da arazo hau konpontzeko dauden aukera gutxi horiek aztertzeko, hiri eta komunitate jasangarrien helburuan murgilduz zeharka baldin bada ere.

Idea guzti hauetatik horrela, Garapen Jasangarriaren Helburuen txertatzea gauzatu ahal izateko, zer nolako bidea hartu behar den zehazteko oinarri sendo bat lortu da:

- 1.- GJHen barnean hainbat helbururen lanketa on bat egiten dela ikusi da, nahiz eta hauek oraindik barneratuak ez eduki. Beraz, oinarri on bat edukirik eta elkartearen prestutasuna ikusita, helburuen aplikazio zabalago baterako lehen pausua hauen ezagutza lantzea izango litzateke elkartearen partaide guztiei zuzendua.
- 2.- GJHen aplikazioa kosturik gabeko ekintza bat dela garbi uztea garrantzitsua dela ikusi da gaur egun bizi den krisia dela eta. Elkarteak diru-laguntzetan duen menpekotasuna dela medio zailtasunak izan ditzake bere jardueratik haratago inbertsioak egiteko orduan.
- 3.- Elkarteak 17tik 5 helburu ongi lantzen dituela ikusi da. Hauen lanketan zentratzea garrantzitsua litzateke, horretarako helburuen artean lehentasuna dutenak zein diren zehaztuaz. GJH aplikatuta ere, ezin dira guztiak maila berdinean landu.
- 4.- Aurrekoarekin lotuta, helburuak ulertu eta elkartearen txertatzean, 5 helburu horiez gain bertzeak nola landu daitezkeen aztertzeko beharra egongo litzateke, helburuak modu zabal eta transbertsal batean barneratze aldera.

5.- Azkenik, helburuen barneratzea komunikatzeko modua pentsatu beharko litzateke. Horretarako, elkarteak erabiltzen dituen sare sozialetan zabaltzeko aukera, bai eta antolatzen diren jaialdietan nola aipatu eta zabaldu daitezkeen aztertu beharko lirateke.

Hortaz, Garapen Jasangarriaren Helburuen aplikazioaren estrategiaren oinarria izan daitezkeen puntu hauek kontutan hartuta, helburuen barnerapen eta beraz, aplikazioa erraztu egingo litzateke.

6. ONDORIOAK

Garapen jasangarria zer den jakiteko oinarriak landu eta 2030 Agendak barneratzen dituen Garapen Jasangarriaren Helburuak ezagutu eta analisi sakon bat egitea lortu da lehenik. Ondoren, Hirugarren Sektorea eta ekonomia soziala, bai eta Irabazi Asmorik Gabeko Entitateen inguruko azterketa bat egin da, garapen jasangarriarekin ze lotura duten ikusi eta Garapen Jasangarriaren Helburuak nola landu ditzaketen ikusiz. Horrela, azkenik helburuen aplikazioa aztertu da Nafarroako Bertsozale Elkartearen baitan, bertatik ikerketa galdera nagusiaren ondorioak atera ahal izateko: posible al da Garapen Jasangarriaren Helburuen aplikazioa Irabazi Asmorik Gabeko Entitate batean?

Ondorioetara heltzeko beraz hainbat kontzeptu ongi ulertzea ezinbertzekoa izan da, lotu diren aldeak, GJH eta Nafarroako Bertsozale Elkartea nondik datozen eta bakoitzaren xedea zein den argituz.

Garapen Jasangarriaren Helburuak entitate batean txertatzea posible baldin bada, entitate hori Hirugarren Sektorekoa izango da. Gizartearen onura bilatzen duen eta honekiko konpromisoa duen entitate batek GJHen baloreak elkarbanatzen ditu, horrela hauen aplikaziorako garrantzitsua den faktorea, prestutasuna, eskainiaz. Honekin ez da enpresa kapitalista batek helburuak aplikatu ezin dituela erran nahi, baina argi dago (kasu bakoitzak bere ezaugarriak eduki arren, hots, entitatearen egoera ekonomikoa, lan giroa...) gizartearen onura etekin ekonomikoen aurretik lehenesten duen entitate batek errazago izango duela helburuak barneratzea, are gehiago modu transbertsal batean, bere egunerokotasunean nabarituaz.

Nafarroako Bertsozale Elkartearen analisisa egiterakoan, aurreikuspenak bete dira eta Garapen Jasangarrirako Helburuen aplikazioa gauzatzeko entitate egokia dela ikusi da. AMIA analisi bat egin da helburuen ikuspegitik aztertuz, elkartearen analisi orokor eta sakon bat egin beharrean bere estrategia definitzeko. Hau da, egin den analisisa GJHen aplikaziorako estrategia

definitzeko oinarrirako egin da, prozesuan eragin dezaketen barne eta kanpo faktoreak aztertuta, eta ez enpresaren estrategia orokorrerako.

Horrela, helburuen aplikaziorako zuzenean eragiten duten faktoreen analisia egin da, bertze zeharkako faktore batzuk ere kontutan hartuta noski. Izan ere, indargune bat ikustean genero berdintasunaren alde egiten duela helburuen aplikaziorako zuzeneko faktorea den bezala, ekonomia krisi bat zeharka eragiten duena da, gaitasun ekonomikoa galtzeak helburuen aplikazioan lanketa egitea zailtzen baitu bertzeak bertze.

Horrela, aipatutako tresnak erabilia ondorio ezberdinak ateratzea lortu da. Erran bezala, gizarte ekonomiako entitate batek Garapen Jasangarriaren Helburuak aplikatzeko erraztasunak dituela ikusi da, bere izaera dela medio. Bertsozale Elkartearen kasuan partaideen prestutasuna positiboki baloratu da, nahiz eta 2030 Agendako helburuen ezagutza eskasa eduki. Bertsozale Elkartean helburuen aplikazio zabal bat egin daitekeela ondorioztatu da arrazoi hau eta bertze batzuek garbi erakutsi dutelarik.

Kultura eta hizkuntzaren esparruetan lan egiten duen entitatea izanik, bost izan dira orain arte hobekien landu izan dituen helburuak: kalitatezko hezkuntza, genero berdintasuna, lan duina eta hazkunde ekonomikoa, desberdintasunak murriztea eta ekoizpen eta kontsumo arduratsuarenak. Jada helburu horiei ematen zaien garrantzia ikusirik, helburuen aplikazioa tramite hutsa litzatekeela pentsatzeko modukoa izan zitekeen, baina ez da horrela izan.

Bertze aldetik begiratuta gabeziaren bat ere agertu da, energia kutsakorren erabilerarena langileen mugikortasun modua dela eta adibidez. Gainera, helburuak 17 izanik 5 lantzea ez da nahikoa GJHen aplikazio egokia egina izateko. Horrela, helburuen ezagutza kanpaina baten beharra ikusi da elkarte barruan hasi eta barrutik kanpora zabalduaz interes taldeei. Hainbat helburu hurbilgotik lantzeko aukera ikusi da, bertso txapelketetako gaietan sartuaz hasi eta adibidez, gosearen aurka bertso jaialdiak antolatu daitezkeelarik.

Eguneroko kudeaketan GJHen barneratzea lortzeko helburuak finkatzeko beharra ikusi da. Birziklatutako papera erabili, energiaren kontsumoa neurtu... eguneroko lanean landu daitezkeen ekintzak dira, eta GJHen aplikazio egoki baterako helburuak zehaztu behar dira, hots, aurreko urtean energian egindako gastua murriztu ala paperean egiten diren zenbait lan digitalizatu.

Diru-laguntzekiko dagoen menpekotasuna dela eta krisi garai honetan edozein lan gehigarri zailago izan daitekeela ondorioztatu da, baina helburuen aplikazioak ez du kostu gehigarri eskatzen eta langileen inplikazioa kontutan hartuta gauzatzeko modukoa dela ondorioztatu da.

Hortaz, atera den ondorio nagusia Nafarroako Bertsozale Elkartean Garapen Jasangarriaren Helburuen aplikazio egoki bat egin daitekeela izan da, erakutsitako prestutasuna, baloreak eta jada egiten dituzten ekintzen analisiaren ondoren. Honen ondotik ikusi ahal izan da ere ekonomia sozialaren baitan diharduten entitateek errazago barneratu ahal dituztela helburuak hauen izaera eta sortze arrazoiagatik gehien bat, baina enpresa kapitalistak direnak ere ez dira baztertzen Garapen Jasangarriaren Helburuak barneratzeko.

Helburu hauen aplikazioa gizartearen garapenerako positiboa dela ondorioztatu da maila eta dimentsio guztietan, hots, ekonomikoki, natura baliabideei dagokienez eta giza eskubideen aldetik, eta beraz, aplikazioarekin batera hauen ezagutza zabaltzeko beharra dagoela.

Horrela, SDG Compass gida jarraituz egin daiteke aplikazioa, bost pauso errazetan. Hasteko, Garapen Jasangarriko Helburuak ulertu beharra dago. Hortaz, erran bezala hauen ezagutza-maila handitu behar dela eta, bilera edo hitzaldiren bat antolatzea ongi egonen litzateke langileak helburuen nondik norakoak ezagutzeko. Ezagutza kanpaina izan daitekeen hau zuzendariaren eskutik antolatzea gomendatu ohi da, garrantzia emateko. Horrela, elkartearen barruko ezagutza lortuta, kanpora zabaldu beharra dago sare sozial eta abarren bidez interes-taldeak ere konzientziatzeko.

Ondoren, lehentasunak zehaztu beharko lirateke. Entitate batek ezin ditu 17 helburuak era berean landu, eta hortaz elkarteak zein helburu jorratuko dituen ikusi behar da, lehentasunak zein diren aztertuz. Kasu honetan Nafarroako Bertsozale Elkarteak hobekien lantzen dituen bost helburu horiek lehenetsi beharko litzuzke, hauetan zentratuz gehien bat. Hortik aurrera, bertze helburuekin zerrenda bat egin beharko luke ematen zaien garrantziaren arabera, eta horren arabera joan helburu berri horiek gehiago lantzen.

Hirugarren pausua helburuak ezartzearen da. Behin lehentasunak zehatuak daudelarik, hauen lanketarako lagungarria da. Bertsozale Elkarteak hainbat helburu jarri ditzake bere buruarentzat, horrela konpromisoa ere erakutsiaz. Hala nola, urtean x bertso-saio klima aldatetaren arazoan laguntzeko, 0 kilometro bezala ezaguna den politika aplikatu, Ibilgailurik gabeko eguna antolatu (ahal bada)...

Ondorengo pausuak elkarte berriz maila batera eramatea du xede, GJHen baitan. Helburuak barneratu eta egunerokoan lantzea lortu beharra da. Honek kontzientziazio handia eskatzen du partaideentzat, eguneroko ekintzetako erabakiak hartzeko balio baitu. Elkarteak erabiltzen duen papera birziklatua izatea, berogailua ahalik eta gutxien erabiltzea... mota horretako ekintzak izango lirateke.

Azkenik, aurreko guztia komunikatzea faltako litzateke. Bertsozale Elkarteak GJHen aplikazioa argitara ematea, ema dituen pausuak azalduaz. Zein helburu finkatu diren, nola lantzen diren, hauen lorpena, bertze erakundeekin konparatu... Gaur egun sare sozialen bidez erraza da lan hau egitea, baina norbait lan hau egiteaz arduratzea ongi legoke.

Beraz, bost pausu hauen bidez Garapen Jasangarrirako Helburuen aplikazio egoki bat egin daitekeela ondorioztatu da, modu erraz eta eraginkor batean. Nafarroako Bertsozale Elkartearen baloreak eta helburuen aplikaziorako duen prestutasunak asko errazten du prozesua, baina edozein entitateetan, zailago edo errazago, eragin handiagoa edo txikiagoarekin eta lorpen eder edo eskasagoekin bada ere, aplikazioa posiblea izan daiteke, bertako partaideak prest dauden bitartean.

Idea ona litzateke gizarte ekonomiaren baitan diharduen entitateak eta Garapen Jasangarrirako Helburuen arteko lotura gehiago lantzea, mota honetako entitateek hauen aplikaziorako duten erraztasunagatik. Sektorea bera nola banatzen den ikertu daiteke akaso, entitateak gehien lantzen dituzten helburuen arabera, 2030 Agendako helburuen lorpena nolakoa litzatekeen ikusiaz, lorpena sektore honen esku utziz gero. Horrela berez GJHen baloreak elkarbanatzen dituzten entitateek hauen ezagutzarik ote duten, zenbateko garrantzia ematen dieten, hauekiko adostasun osoa duten, zer hobetu daitekeen... aztertu daiteke, eta helburuen aplikazio egokia nola egin daitekeen ikertu sektore guztira begiratuta, entitate hauek zer erran handia izan dezakete eta gizartearen kontzientziazio eta sentsibilizazioan helburuekiko. Era berean, helburuen aplikazioaren kostu ekonomikoak zein denbora kostuak aztertu daitezke, hauek izan daitezke eta hasiera batean edozein entitatek aurrera pausua ez emateko arrazoiak.

Bukatu aurretik, azken ondorio bezala, garapen jasangarria garapen posible bakarra dela argi utzi nahi da, gobernu, entitate zein norbanako bakoitzak eragina duelarik honen lorpenean. Gaur egun ditugun ohitura eta joera kontsumista eta berekoiak alde batera uzteko ordua aspaldi heldua dela pentsatu beharra dago, ondorengoei ere planeta honetako biziaz gozatzen utzi nahi bazaie.

BIBLIOGRAFIA

- Adams, B. (2015). Indicadores y datos de los ODS: ¿Quién recauda? ¿Quién informa? ¿Quién se beneficia? URL: <https://www.globalpolicywatch.org/esp/?p=288> (Kontsulta: 2020/09/28).
- AECA, Asociación Española de Contabilidad y Administración de Empresas (2012). Indicadores para Entidades Sin Fines Lucrativos. Documento N°3. Universidad Politécnica de Cartagena.
- Aguado, A. (2018). El desarrollo sostenible: 30 años de evolución desde el Informe Brundtland (Doktore Tesia). Universidad de Sevilla.
- AIS Group (2019). País Vasco y Navarra, las CCAA que mejor cumplen los Objetivos de Desarrollo Sostenible marcados por la ONU. URL: <https://www.ais-int.com/pais-vasco-y-navarra-las-ccaa-que-mejor-cumplen-los-objetivos-de-desarrollo-sostenible-marcados-por-la-onu-ods-espana/> (Kontsulta: 2020/09/16).
- Andreu, A.; Fernández, J. (2019). Los ODS y sus (posibles) lagunas. URL: https://elpais.com/elpais/2019/02/08/planeta_futuro/1549628983_409880.html (Kontsulta: 2020/09/30).
- Andreu, A.; Fernández-Fernández, J. L.; Fernández, J. (2019). Pasado, Presente y Futuro de los Objetivos del Desarrollo Sostenible (ODS). La tecnología como catalizador (o inhibidor) de la Agenda 2030. *Revista cuatrimestral de las Facultades de Derecho y Ciencias Económicas y Empresariales*. N° 108, 2341-0841.
- Bertsozale Elkartea (2018). Bertsozale Elkartearen Gogoeta Estrategikoa. URL: <https://www.bertsozale.eus/eu/img/elkartea/2018ko-gogoeta-estrategikoa> (Kontsulta: 2020/10/03).
- Bertsozale Elkartea (2019). 2019ko Memoria eta Balantzea. URL: <https://www.bertsozale.eus/eu/elkartea/txostenak/2019-memoria> (Kontsulta: 2020/10/03).
- Bertsozale Elkartea (2020). 2020ko Egitasmoa. URL: <https://www.bertsozale.eus/eu/elkartea/txostenak/2020-egitasmoa> (Kontsulta: 2020/10/03).
- Bertsozale Elkartea (d.g.). *Webgune ofiziala*. URL: <https://www.bertsozale.eus/eu/elkartea/bertsozale-elkartea> (Kontsulta: 2020/09/30).
- Bidaurrazaga, E. (1998). Garapen Kontzeptuari Buruzko Eztatbaida. Euskal Herriko Unibertsitatea.

- Cepes, Confederación Empresarial Española de la Economía Social (d.g.). ¿Qué es la economía social? URL: https://www.cepes.es/social/econ_social_que_es (Kontsulta: 2020/09/30).
- Cepes, Confederación Empresarial Española de la Economía Social (d.g.). Ranking de Empresas Relevantes de la Economía Social. URL: https://www.cepes.es/social/ranking_global (Kontsulta:2020/09/30).
- Cepes, Confederación Empresarial Española de la Economía Social (d.g.). Tipos de entidades-mutualidades. URL: https://www.cepes.es/social/entidades_mutualidades (Kontsulta: 2020/09/30).
- Cepes Nafarroa, Nafarroaren Ekonomia Gizarte Enpresa-Konfederazioa (d.g.). Zer den CEPES Nafarroa. URL: <http://www.cepesnavarra.org/zer-den-cepes-nafarroa/> (Kontsulta:2020/09/30).
- Cortés-Putch, M. (2016). Los ODS y el Acuerdo de París: herramientas para coordinar globalmente el desarrollo sostenible. *Tiempo de Paz*. Nº120, 32-43.
- Credit Suisse Global Wealth Report (2010). Research Institute Global Wealth Report 2010. 14. URL: <https://www.credit-suisse.com/about-us/en/reports-research/global-wealth-report.html> 14.orria (Kontsulta: 2020/10/03).
- Credit Suisse Global Wealth Report (2019). Research Institute Global Wealth Report 2019. 9. URL: <https://www.credit-suisse.com/about-us/en/reports-research/global-wealth-report.html> (Kontsulta: 2020/10/03).
- Esteban Galarza M.L.; Bullen M.; Díez Mintegui, C.; Hernández García J.M.; Imaz Martínez, E. Continuidades, conflictos y rupturas frente a la desigualdad: jóvenes y relaciones de género en el país vasco. *Certámenes Emakunde*. 126-134.
- Eusko Jaurlaritza-Agenda Euskadi Basque Country 2030 (2018a). 2. Jarraipen Txostena. URL: https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/agenda2030/eu_def/adjuntos/2018_jarraipena_Agenda_Euskadi_Basque_Country_2030.pdf (Kontsulta: 2020/09/28).
- Eusko Jaurlaritza-Agenda Euskadi Basque Country 2030 (2018b). Euskal Ekarpene Garapen Jasangarrirako 2030 Agendari. URL: https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/agenda2030/eu_def/adjuntos/Agenda_Euskadi_Basque_Country_2030_garapen_jasangarria.pdf (Kontsulta: 2020/09/30).
- Eusko Jaurlaritza-Hiru.eus (d.g.). Mundu Garatua eta Mundu Azpigaratua. URL: <https://www.hiru.eus/eu/geografia/mundo-desarrollado-y-mundo-subdesarrollado> (Kontsulta: 2020/09/28).

- Eustat, Euskal Estatistika Erakundea (2019). Índice de Desarrollo Humano por indicadores según países 2019. URL: https://www.eustat.eus/elementos/ele0013500/indice-de-desarrollo-humano-por-indicadores-segun-paises/tbl0013566_c.html (Kontsulta: 2020/09/28).
- García, M. (2018). Tipos de organizaciones no lucrativas. URL: <https://www.asociacionproade.org/blog/tipos-de-organizaciones-no-lucrativas/> (Kontsulta: 2020/09/30).
- Gizapedia (d.g.). *Giza eta Gizarte Zientzien Entziklopedikoa*. URL: <https://gizapedia.hirusta.io/garapena-eta-azpigarapena/> (Kontsulta: 2020/09/28).
- Glosbe (d.g.). Diccionario Glosbe. URL: <https://eu.glosbe.com/eu/es/herrialde%20garatu> (Kontsulta: 2020/09/28).
- Gómez, C. (2018)._Objetivos de Desarrollo Sostenible (ODS): una revisión crítica. *Papeles de Relaciones Ecosociales y Cambio Global*. Nº140 2017/18, 107-118.
- González, M. (2005). Objetivos de desarrollo del milenio. *SIC*. Nº673, 111-113.
- GRI-UNGC-WBCSD, Global Reporting Initiative-United Nations Global Compact-World Business Council for Sustainable Development (2019). *SDG Compass, La guía para la acción empresarial en los ODS*. URL: https://sdgcompass.org/wp-content/uploads/2016/06/SDG_Compass_Spanish-one-pager-view.pdf (Kontsulta: 2020/09/30).
- Guías Jurídicas Wolters Kluwer (d.g.). Entidad no lucrativa. URL: https://guiasjuridicas.wolterskluwer.es/Content/Documento.aspx?params=H4sIAAAIAAAEAMtMSbF1jTAAASNjUxNLtbLUouLM_DxblwMDS0NDA1OQQGZapUt-ckhlQaptWmJOcSoAknsQHjUAAAA=WKE#13 (Kontsulta: 2020/09/29).
- Iracheta, E. (d.g.). ¿Qué es el SDG Compass?. URL: <https://www.iracheta.es/que-es-sdg-compass.html> (Kontsulta: 2020/09/30).
- Meadows, D.; Randers, J. y Meadows, D. (2006): *Los limites del crecimiento 30 años después*. Circulo de Lectores. Barcelona.
- Mitxeo, J. (2016). *Zuzendaritza estrategikoa: enpresaren politika*. Unitate didaktikoak. *Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako Gradua UPV-EHU*. Nº12, 95-106.
- Monzón, J.L. (2006). Economía Social y conceptos afines: fronteras borrosas y ambigüedades conceptuales del Tercer Sector. *CIRIEC-España, Revista de Economía Pública, Social y Cooperativa*. Nº56 2006, 9-24.

- Nafarroako Gobernua (d.g.). Objetivos de Desarrollo Sostenible en Navarra. URL: <https://ods-agenda2030.navarra.es/> (Kontsulta: 2020/09/28).
- NU, Naciones Unidas (2019). Informe de los Objetivos de Desarrollo Sostenible 2019. URL: https://unstats.un.org/sdgs/report/2019/The-Sustainable-Development-Goals-Report-2019_Spanish.pdf (Kontsulta: 2020/09/28).
- Plataforma de ONG de Acción Social (2020). El Tercer Sector de Acción Social en España 2019, Nuevos Horizontes para un Nuevo Contexto Sociopolítico. URL: <http://www.plataformatercersector.es/sites/default/files/IV%20Estudio%20Tercer%20Sector%20resumen%20ejecutivo.pdf> (Kontsulta: 2020/09/30).
- PNUD, Programa de las Naciones Unidas para el Desarrollo (2000). Objetivos de Desarrollo del Milenio. URL: https://www.undp.org/content/undp/es/home/sdgooverview/mdg_goals.html (Kontsulta: 2020/09/16).
- PNUD, Programa de las Naciones Unidas para el Desarrollo (2005). Objetivos de Desarrollo del Milenio Informe 2015. URL: <https://www.undp.org/content/undp/es/home/librarypage/mdg/the-millennium-development-goals-report-2015.html> (Kontsulta: 2020/09/30).
- Ribas Bonet, M.A. (2001). El balance social como instrumento para la evaluación de la acción social en las entidades no lucrativas. *CIRIEC-España, Revista de Economía Pública, Social y Cooperativa*. Nº 39 2001, 115-147.
- Red Española PMNU, Red Española del Pacto Mundial de Naciones Unidas (2019). Las ONG ante los objetivos de desarrollo sostenible, Propuesta de acción del Pacto Mundial. URL: <https://www.pactomundial.org/wp-content/uploads/2019/05/Las-ONG-ante-los-Objetivos-de-Desarrollo-Sostenible.pdf> (Kontsulta: 2020/09/30).
- Sanahuja, J.A. (2014). De los Objetivos del Milenio al desarrollo sostenible: Naciones Unidas y las metas globales post-2015. *Focos de tensión, cambio geopolítico y agenda global*. Instituto Complutense de Estudios Internacionales (ICEI).
- Sanahuja, J. A.; Tezanos, S. (2017). Del milenio a la sostenibilidad: retos y perspectivas de la Agenda 2030 para el desarrollo sostenible. *Política y Sociedad*. 54(2), 533-555.
- Sareen Sarea (d.g.). Euskadiko hirugarren gizarte-sektorea URL: <https://www.sareensarea.eus/eu/euskadiko-hirugarren-gizarte-sektorea> (Kontsulta: 2020/09/30).
- Serpa, F.; Rojas, L. (2008). Sos en la recaudación de fondos entre las organizaciones sin fines de lucro. *Scientific International Journal*. 5 (3), 42-54.

- Taccari, D.; Stockins, P. (2013). Tipologías de discrepancias y medidas de conciliación estadística de los indicadores ODM. *CEPAL – Serie Estudios Estadísticos*. Nº81.
- Unceta, K. (2015). De los ODM a los ODS. URL: <http://www.pensamientocritico.org/kolunz0116.htm> (Kontsulta: 2020/09/30).
- Uniagustiniana (2010). Teoria De La Piramide De Carrol. URL: <http://rseuniagustiniana.blogspot.com/2010/09/teoria-de-la-piramide-de-carrol.html> (Kontsulta: 2020/09/30).
- Unicef (d.g.). 5 diferencias entre los Objetivos de Desarrollo del Milenio y los Objetivos de Desarrollo Sostenible. URL: <https://www.unicef.es/noticia/5-diferencias-entre-los-objetivos-de-desarrollo-del-milenio-y-los-objetivos-de-desarrollo> (Kontsulta: 2020/09/28).
- UNSDSN, United Nations Sustainable Development Solutions Network; IEEP, Institute for European Environmental Policy (2019). 2019 Europe Sustainable Development Report. URL: <https://ieep.eu/uploads/articles/attachments/3af13d3d-41a6-47d5-8199-405052fd620f/Europe%20Sustainable%20Development%20Report%202019.pdf?v=63741369539> (Kontsulta: 2020/09/16).
- Vilches, A.; Gil Pérez, D.; Calero M.; Toscano, J.C.; Macías, O. (2014). Objetivos de Desarrollo Sostenible. URL: https://www.researchgate.net/profile/Daniel_Perez36/publication/302411420_Objetoivos_de_Developmento_Sostenible_ODS/links/57317ec008ae100ae557568c/Objetivos-de-Desarrollo-Sostenible-ODS.pdf (Kontsulta: 2020/09/30).

ERANSKINA

I. ERANSKINA: Inkesta - Garapen Jasangarrirako Helburuen ezagutzaren inguruan

1.- Garapen Jasangarrirako Helburuen ezagutza

*1. Sexua

- Gizona
- Emakumea
- Bertzelakoa

*2. Adina

- 0-14 urte
- 15-25 urte
- 26-35 urte
- 36-45 urte
- 46-55 urte
- 56-65 urte
- 66-75 urte
- 75 urte baino gehiago

*3. Herria

*4. Ikasketa-maila

- Derrigorrezko hezkuntza
- Babxilergoa/Erdi-mailako zikloa
- Goi-mailako zikloa
- Unibertsitate-ikasketak
- Otro (Por favor especifique)

*5. Entzuna duzu inoliz Garapen Jasangarrirako Helburuen inguruan?

- Bai
- Ez

Nun edo nundik jaso duzu GJH buruzko informazioa?

*6. Ikusi duzu noizbait ondoko irudia?

Bai

Ez



*7. Nabaria al da Garapen Jasangarrirako Helburuen eragina zure inguruan? Zein helbururena gehien? (gehienez hiru aukera daitezke)

- 
 1. Pobrezia desagerraraztea
- 
 2. Goserik ez
- 
 3. Osasuna eta ongizatea
- 
 4. Kalitatezko hezkuntza
- 
 5. Genero berdintasuna

- 
 6. Ur garbia eta saneamendua
- 
 7. Energia irisgarria eta ez kutsagarria
- 
 8. Lan duina eta hazkunde ekonomikoa
- 
 9. Industria, berrikuntza eta azpiegitura
- 
 10. Desberdintasunak murriztea
- 
 11. Hiri eta komunitate jasangarriak
- 
 12. Ekoizpen eta kontsumo arduratsuak
- 
 13. Klimaren aldeko ekintza
- 
 14. Itsaspeko bizitza
- 
 15. Lehorreko ekosistemetak bizitza



16. Bakea eta justizia



17. Helburuak lortzeko aliantza

Ez da nabaria

8. Ezagutzen al duzu enpresarik hauek aplikatzen dituenik?

Bai

Ez

Zein enpresetan?

*9. Uste duzu GJH garrantzitsuak direla zure eskualdearen garapenerako? Zein gehienbat? (gehienez bost aukera daitezke)



1. Pobrezia desagerraraztea



2. Goserik ez



3. Osasuna eta ongizatea



4. Kalitatezko hezkuntza



5. Genero berdintasuna

- 
 6. Ur garbia eta saneamendua
 - 
 7. Energia iregarria eta ozkoagarris
 - 
 8. Lan duina eta hazkunde ekonomikoa
 - 
 9. Industria, berrikuntza eta azpiegitura
 - 
 10. Desberdintasunak murriztea
 - 
 11. Hirri eta komunitate jasangarriak
 - 
 12. Ekolopro eta kontsumo arduratsuak
 - 
 13. Klimaren aldaketarako ekintza
 - 
 14. Itsaspeko bizitzak
 - 
 15. Lehoreko ekosistemarako bizitzak
 - 
 16. Bakea eta justizia
 - 
 17. Heltzeriak lortzeko aliantza
- Ez dut urte garrantziak dirarik